GUAIXE.EUS

PRES TOKIKOM

Udako Argazki Lehiaketako irudi irabazlea

Kultura >> 15

Ostegunean Aralarko monasterioa jendez bete aurretik, sanmigelak Egiarretan, Ekain, Olatzagutian eta Uharten ospatuko dira

Sakanerria >> 10

D eredua, geldi, aurrera egiten ari da

>>3

AEK-k astelehenan 15 talderekin hasiko du ikasturtea

>>5

Hutsik dauden etxebizitzak, babestutako alokairurako

Nafarroako Gobernuak kanpaina martxan jarri du

>>8

Izurdiagako trenbide pasako lanak despeditzear

>>6

Beilatokia herrian jartzearen kontra

Etxarrin sinadura bilketa hasi dute

>>8

Sakanako Garapen Agentziak eta Guifinet fundazioak landu dute epe motz ertainerako telekomunikazio proposamena.

Irrati bidezko Internet hiru hilabetetan

>>9

Industrian elkarlana bulkatzeko adibideak emateko jardunaldia

>>7

Bizikleta egunak Sakana zeharkatuko du igandean

>>13



Olatzagutia-Urbasa, bihar 10. edizioa jokatuko da

>>12

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke: 3035 0018 47 0181012564

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

Obats
ZORIONAK bihotza! Oraingoan eskuetako behatz guztiak erabili beharko dituzu. Hamar urte bete dituzu iada. Primeran pasa eta disfrutetu. Muxu potoloak. Etxekoak.

Iraia Lopetegi Etxeberria
ZORIONAK pottoka!! zure 3. urtebetetzean!!! Segi hain alai ta maitakor. Ondo pasa zure egunean!!! Mila muxu Lizarrengo eta Arbizuko familiaren partetik!!

Mikel
24 urte!!! ZORIONAK, guapiiiiisimo!!! Zure familiaren partez. Muxu handi bat.

Kier
ZORIONAK txikitxo!!! 2 urte jada!!! Muxu handi bat guztion partetik

Bazkideek deskontua

Bakarra: 4,00€

Bazkideak: 3,50€

Irailak 23-29

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

The Rodeos eta Fuminn dj. Irailaren 25ean, domekan, 19:00etan **Altsasuko gaztetxean.**

Ikuskizunak

Dantza eta musika. Irailaren 24an, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan. Etorkizuna dantza eskola eta **Etxarri Aranazko abesbatza.**

Proiekzioak

Expedición TransGroenlandia. Irailaren 27an, asteartean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Ben-Hur. Irailaren 23an, ostiralean, 22:00etan eta irailaren 25ean, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mami, ¡ya sé dónde está el dinero! Irailaren 28an, asteazkenean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Café society. Irailaren 29an, ostegunean, 19.00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Goldaratz-Altsasu. 80 km. Irailaren 24an, larunbatean, 9:30ean Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. **Zikloturista taldea.**

XXIII. Bizikleta Eguna. 41 km. Irailaren 25an, igandean, 9:00etan Irurtzundik Altsasura.

Erakusketak

Mixed media, sorkuntza eta adierazpenerako beste modu bat. Lastailaren 9ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean. **Yolanda Arnedoren dekorazio-arteak tailerra.**

Tailerrak

Mikologia. Irailaren 24an, larunbatean, 9:00etan Etxarri Aranazko Larrañeta elkartean.

Bestelakoak

Industrian elkarlan esperientziei buruzko jardunaldia. Irailaren 28an, asteazkenean, 8:45etik aurrera Altsasuko Iortia kultur gunean. **Sakanako Garapen Agentzia.**

Merkataritza festa. Irailaren 23an, ostiralean, 17:30etik 20:30era Altsasuko kaleetan barna. **ADE.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 23an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 25ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

» Irurtzun

Irurtzungo azokan artisauak, abereak, taloak, jakiak, jolasak... denetatik egon zen. JOANA LIZARRAGA

ezkaatza >>

SAKANA

Matrikulazio datuekin, euskaltegiak luzerako

Hizkuntza ereduen bilakaera

Ikasturtea	Haur Hezkuntza						Lehen Hezkuntza						DBH			
	A		B		D		A		B		D		A		D	
		%		%		%		%		%		%		%		%
97/98	126	24,1	-	-	396	75,9	365	32,5	-	-	758	67,5	168	35,8	301	64,2
01/02	111	20,9	-	-	420	79,1	320	28,8	-	-	792	71,2	262	38,7	419	61,3
05/06	97	18,2	-	-	437	81,8	278	24,7	-	-	876	75,9	235	34	456	66
06/07	98	17,5	16	2,9	445	79,6	272	23,3	14	1,2	883	75,5	216	32	460	68
11/12	79	11,7	29	4,3	568	84	200	15,8	89	7	974	77,1	176	24,5	542	75,5
12/13	85	11,6	34	4,6	616	83,8	201	15,9	67	5,3	995	78,8	178	24,2	557	75,8
13/14	68	9,8	45	6,5	583	83,7	195	15	65	5	1.039	80	177	23,4	578	76,6
14/15	69	9,9	41	5,9	585	84,2	184	13,9	69	5,2	1.069	80,9	161	22,1	567	77,9
15/16	56	8,4	40	6	573	85,6	184	13,6	71	5,2	1.101	81,2	159	22,2	558	77,8
16/17	57	8,6	47	7,1	557	84,3	181	13,2	61	4,5	1.128	82,3	160	22,5	550	77,5

Ikasturtetik ikasturtera Sakanan D ereduan ikasten duten ikasleen kopuruak gora egiten du. Sartu berri garen honetan hamarren bat igo da D eredua (euskaraz, gaztelania ikasgaia), matrikulazioaren %81,5era iritsiz. A ereduan (gaztelaniaz eta euskara ikasgaia) %14,5ean eta B ereduan %4 ari dira (ikasgai gehienak euskaraz, batzuk gaztelaniaz)

Ikasturte berriaren hasierarekin batera Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak hizkuntza ereduka izandako matrikulazioaren berri eman du. D ereduak osasuntsu segitzen du; aurreneko bi hizkuntza zikloetan %80tik gorako kopurua euskaraz ari dira ikasten. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) muga horretara iristeko 2,5 puntu falta dira (bi urtetan 0,4 jaitsi da). Ikasturte berriko datuei dagokienez, apenas dago aldaketarik. A ereduak hamarren bat galdu du eta, azken hiru urteen modura, B ereduak matrikulazioaren %4ari eusten dio. Hezkuntza eta soziolinguistikako adituek askotan nabarmendu dute azken bi ereduek ez dutela euskara ikastea bermatzen.

Zikloka

Haur Hezkuntzan (HH) dauden 661 umeetatik (aurrekoan baino 8 gutxiago) %84,3k D ereduan ikasten du. Euskarazko ereduak ikasturte batean 1,3 puntu egin du behera, 557 ikaslerekin geldituz (16 ikasle gutxiago, %2,79ko jaitsiera). HHn B ereduak 1,1 gora egin du, matrikularen %7,1 izanik, 47 ikasle (aurrekoan baino 7 gehiago, %17,5eko igoera). Aurreko ikasturtean HHn A ereduan matrikulatuen kopuruak %9tik jaitsi zen. Muga horretatik behera segitzen du, baina bi hamarren gora egin du eta ikasturte berrian matrikulazioaren %8,6 gaztelaniazko ereduan da, 57 ikasle (bat gehiago, %1,75eko igoera).

Lehen Hezkuntzan (LH) euskarazko ereduak etengabe gora egiten segitzen du. Bederatzigarren urtea da goranzko joerarekin eta aurten matrikulatutako haurren %82,3 D ereduan ari da, matrikulazioa 1,1 puntu igo ondoren. Zehazki, 1.128 haur ari dira euskaraz ikasten LHn (27 gehiago, %2,45eko igoera). A ereduak ikasturte batean lau hamarren galdu ditu matrikulazioaren %13,2 eredu horretan izanik, 181 haur (3 gutxiago, %1,63ko jaitsiera). LHn, estreinakoz, B ereduko matrikulazioa %5etik jaitsi da; zazpi hamarren jaitsita %4,5ean gelditu da, 61 haur (10 gutxiago, %14,08ko jaitsiera).

Iñigo Aritza ikastolako haurrak ikastetxera bizikletaz joaten.

DBHn D ereduak ikasturte honetan hiru hamarren jaitsiera izan du eta euskarazko eredua matrikularen %77,5 bereganatu du, 550 gazte (8 ikasle gutxiago, %1,43ko jaitsiera). A ereduan matrikulazioak hiru hamarren egin ditu gora eta %22,5 dira gaztelaniaz ikasten dutenak, 160 gazte (ikasle bat gehiago, %0,62ko igoera).

Guztira

Datu orokorrei erreparatuta, hiru hizkuntza zikloetan 2.741 ikasle ditugu ibarrean, joan den ikasturtean baino bat gutxiago. Euskara Zerbitzuak emandako datuen arabera, D ereduan ikasleen %81,5 ikasten ari dira, 2.235 ikasle; aurreko ikasturtean baino hiru gehiago. Gaztelaniazkoan, A ereduan, %14,5 daude, hamarren bat gutxiago. Aurreko ikasturtean 400 ikasleen mugatik jaitsi zen A eredua eta hortxe mantentzen da 398rekin (bat gutxiago). B ereduan, azkenik, ikasleen %4 daude, 108 hain zuzen (3 gutxiago).

SAKANA

Artxuetako antenak.

ETB1 ikusgai

Atzotik ETB1 Lurreko Telebista Digital (LTD) ikusteko aukera dago Nafarroan. Euskarazko telebista 26. kanalaren bidez emititzen du, lizentzia zuen enpresa batek hari uko egin ondoren. ETB1ekin batera Euskadi Irratia, Radio Euskadi eta Gaztea irratien seinalea iristen da etxeetara. ETB1en eta irratien seinalea hartzeko LTD telebistako kanalak berriz sintonizatu beharko dira. Arazorik izatekotan, antenistarekin harremanetan jarri behar da. Bide batez, birsintonizazioa aprobetxatuta, ETBren kanalak urrutiko aginteko lehen postuetan jartzera animatu nahi ditu EiTBk ikus-entzuleak. Sakanan ETB2 analogikoan ikusten segitzeko aukera izanen da. Baina ETB3 inolaz ere ez.

+www.guaixe.eus

astekoa

Burkiniak eta toplessa

Xabier Reparaz Extramiana

Uda amaitzear den honetan, gogora datozkit siesta eta patxada artean entzundako hainbat auzi. Haietan atentzioa gehien deitu didanetako bat Frantziako hainbat udalerrik burkinia –izen despektiboa benetan– debekatu izana da. Emakumeak hondartzatik altxarazi eta gendarmeen botak aurrean dituztela beren janzkerarekiko epaia entzun eta hargatik zigortuak izan dira. Hemen bertan, duela urte batzuk galerazita zegoen topless egitea. Bularrak bistan hondartzan ibiltzea, ordea, egunerokotasun udatiarraren parte da. Ez al dute eskubiderik emakumeek nahi bezala hondartzaz disfrutatzeko? Burkiniaren antzeko diren surfisten neoprenoak debekatu behar ote dira? Janzkera gure nortasunaren irudi den gizarte honetan, bakoitzak nahi duena jantzi beharko luke.

Burkinia janztera behartzea hura eranztera behartzea bezain gaizki dago. Norbanakoaren askatasuna errespetatu behar dugu topless edo burkiniarekin hondartzara joatean ere. Batez ere epaitzerako orduan harik eta informazio gehien izan beharra dute legeak egiten dituztenek. Beranduago, debekua galerazi ostean jakin zen, burkini delakoa diseinatu zuenak, emakume musulmana bizimodu mendebaldarrera egokitzeko sortu zuela, bere sinismenek ez zezaten hondartza bezalako askatasun espazioetatik aldendu. Agian batzuk nahiago lituzkete etxean giltzapeturik, baina ez dezagun ahaztu gure gizartea kultura eta erlijio aniztasunean bizi dela. Guztion eskubideen errespetua da elkarbizitzaren giltza, inoiz ez bestearen aurkako debekua.

barrutik kanpora

Beste gertakari larri bat espetxe bidean

Duela bi aste, goizeko lauretan, Guardia Zibilaren kamuflatutako bi auto agertu ziren bat-batean. Armak leihatilatik aterata, Kordobara bisitak egitera zihoan euskal preso politikoen senideen furgoneta geldiaraztera derrigortu zuten autopista erdian. Furgonetan zeuden sei pertsonek ikusi zuten nola armak eskuan zituzten lau agente korrika hurbiltzen zitzaizkien. Antza oso urduri zeuden agenteak. Ibilgailuko ateak ireki, gidariari pistola buruan jarri, kanpora atera eta lurrean etzatera behartu zuten. Gauza bera egin zuten bere kidearekin, eskuburdinak jarrita eskuak bizkar atzean jarri zizkioten, eta agente bat bere gainean jarri zen, asfaltoaren kontra mantenduz. Operatibo antiterrorista bat zela oihukatuz, Mirentxin Elkartasun Kolektiboko bi gidariak lurrean geldiarazirik mantendu zituzten, eta pistolekin ere apuntatuz, errepidera ateratzera derrigortu zituzten bidaiatzen zuten lau senideak. Geroago, Guardia Zibilek akats bat izan zela esan eta erretiratu egin ziren. Halere, furgoneta ia ez zuten erregistratu, ezta bidaiariak identifikatu ere.

Gertaera honen indarkeria zuzenean sufritu zuten Mirentxineko bi gidariei elkartasuna adierazi nahi diegu Etxeratetik, eta gure errekonozimendua eskaini, dispertsioaren karga arintzeko egiten duten lanagatik. Indar politikoek, sindikatuek eta eragile sozialek gure egoeraz jabetu eta horren arabera jardun dezaten behar dugu. Dispertsioa desaktibatzeko euren konpromisoa behar dugu. Egungo kartzela politikaren zigorgabetasuna eta arbitrariotasunei muga jartzeko benetako pausoak eman ditzaten behar dugu.

Sakanako Etxerat

hara zer dien

Drogak eta gidatzeko gaitasuna

Espainiako bide-segurtasun fundazioak (FESVIAL) publikatu berri duen ikerketa batean ikus daiteke biztanleriaren artean ezezagutza handia dagoela, errepidean droga kontrol bat zertan datzan eta droga mota desberdinek gidatzean duten efektuetaz. Bestalde, biztanleriak alkohola edan edo beste droga batzuk kontsumitu ondoren gidatzea oso arriskutsutzat jotzen dute, gidatzerakoan mobila erabiltzea, segurtasun uhala ez jartzea edo baimendutako abiadura pasatzea baino arriskutsuagoa.

Gidatzerakoan trebetasun desberdinak erabili behar dira. Drogen kontsumoak gaitasun edo trebetasun honetan eragin handia du. Pertzepzioa aztoratzen da, erantzun gaitasuna moteldu... Horretaz aparte, droga bakoitzak pertsona bakoitzean sortzen duen eragina dago eta droga desberdinen nahasketak ere eraginkortasun negatiboa du gidatzeko orduan.

Drogak hartuta gidatzeak ez du soilik segurtasunarekin gidatzeko gaitasuna murrizten, kotxe istripuak gertatzeko aukerak ere areagotzen ditu.

Gidarien artean drogetan positibo ematen duten kasuak oso nabarmenak diren arren, azken urteotan behera egin duela ere esan beharra dago. Arrazoiak kontrol gehiago egotea edota legedi berria izan daitezke, edo agian biztanleriaren kontzientzia handitzen ari dela ere esan genezake.

Urtero droga mota berriak sortu ohi dira –2012-2014 urte bitartean Europan 255 droga berri detektatu ziren–, eta hauen guztien eraginak oso ezezagunak dira biztanleriaren artean. Gidatzeko orduan ezezagunagoak dira oraindik, baina adituek azpimarratzen dutenez, gidatzeko gaitasunean efektuak dituzte.

Badira droga kontroletan positibo ezemateko funtzionatzen duten mito batzuk, oso hedatuak daudenak. Eta hitzak berak dioen moduan mitoak dira; ez dira egia, sinismen faltsuak baizik. Hauek dira besteak beste: ura edatea, kafea hartzea, gidatu aurretik 2 ordu itxarotea, kirola egitea, izerditzea, aho-irakuzketarenbat edatea, gidatu aurretik lo pixka bat egitea, limoiak jatea, edari energetikoak edatea, etab.

Drogetaz hitz egiten dugun moduan, botiketaz ere hitz egin beharrean gaude, gidatzeko gaitasunean ere bere eragina edukitzen baitute askotan. Horregatik, botikaren kaxan begiratu beharko dugu ea gidatzean eragina duen ala ez, medikuari edo botikariari ere galdetu ahal diogu, prospektuan begiratu, botika berri bat hartzerakoan edo dosia handitu diguten lehen egunetan gidatzea sahiestu eta norberarengan botikak duen eraginari erreparatu beharko dugu.

Sakanako Prebentzio Zerbitzuak

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU eginen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zure iritzia helarazteko:
Foru plaza, 23, 1 Altsasu;
gutunak@guaixe.eus edo
948 564 275 telefonoa.

Irailak 27: Izarren argia.
Gaizka Uharte (LAB)
Ane Lizarraga (Ernai)
Maitane Intxaurraga (Sortu)

"Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai,
hauts hartatikan uste gabean noizpait giñaden gu ernai.
Eta horrela bizitzen gera sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik hartu gabe: lana egiñaz goaz aurrera
kate horretan denok batera gogorki loturik gaude...
...Gu ere zerbait ba gera eta gauden tokitik hemendik bertan
saia gaitezen ikusten: ametsetan bazterturikan,
sasi zikiñak behingoz erreta bide on bat aukeratzen....
...Eta ametsa bilakaturik egiaren antziduri
herri zahar batek bide berritik ekingo dio urduri..."

Mikel Laboaren kantaren zati batekin hasi nahi izan dugu idazkia, berak laburtzen duelako esaldi hauetan Ezker Abertzaleak esan, sentitu, bizi eta egin nahi duena.

Herri hau iluntasunetik argira eraman, zeruan piztu genituen izarren argiak gidatuta, iragana ahaztu gabe, herri honen etorkizuna bermatuko duen ibilbidea egitera goaz. Independentzia, sozialismoa, feminismoa eta euskara helburu dituen bidea egiten jarraituko dugu.

Bidean gelditu diren kideak askatasuna zuten helburu eta egun helburu berdina da helmuga. Independentziaren bidea aktibatzea da asmoa, prozesu herritar eta demokratiko bat martxan jarriz. Ezker Abertzalea ez bai zen jaio erresistitzeko, irabazteko baizik, askatasuna irabazteko.

Aurten egun seinalatu honetarako izarrak jarri nahi ditugu herrietan, memoria lantzetik etorkizuna irabazteko ibilbidea irudikatuz. Gora herria!

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Garbiñe Navarro Rodríguez • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Joana Lizarraga
ZUZENTZAILEA: Miren Alonso
ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburordetza

sakanerria >>

» **Altsasu**

Hemen da Merkataritza Festa!

Gaur, 17:30etik 20:30era, Altsasuko kaleetan eta dendetan barna

Altsasuko Dendarien Elkarteak (ADE) antolatuta, estreinakoz, Merkataritza Festa ospatuko da. ADEko kide Elena Aldasorok azaldu digunez, "elkarteko kideek nahiz eta promozio ezberdinak egin, herriari bizia eman behar diogula pentsatu dugu. Kaleak eta jendeak animatu Altsasun herri bizitza egiten eta, ez, askotan kanpora joateko dugun jarrera". Gaurko arratsaldea animatzeko, beraz, "zirku ikuskizun moduko bat egonen da". Konpartsa txiki bat. Zankodunak, musika eta beste izanen dira. "Hainbat dinamizazio eginen dituzte, bai kaleetan bai dendetan ere", azaldu digu Aldasorok. Azken batean, "herri honi umorea eta alaitasuna emateko da. Aldi berean, agerian utzi nahi dugu ADEk herria dinamizatzeko ahalegina egiten duela". Aldasorok nabarmendu duenez, "ez da ahaztu behar gu dendariak garela eta salmentaren bidez bizimodua mantentzen dugula. Baina, aldi berean, herriak konturatzea nahi dugu guk ere herriaren alde egiten dugula, nahiz eta horrekin ekonomia-etekinik ez izan".

17:30ean Izara denda ingurutik abiatuko da segizioa, kultur gune ingurutik. Hiru orduko ikuskizuna izanen da Altsasuko kaleetan eta dendetan barna. "Jendea etxera iristean ADEren eskutik zerbait ezberdina ikusi duenaren sentipena izan dezala nahi dugu. Ia haur, gazte eta pertsona guztiak denak animatzen garen eta kalera ateratzen garen".

SAKANA

Jolasaren inguruko mintegia

Kattuka haur eskolak asteburuan jolasaren inguruko bizipen mintegia hartu zuen. Euskal Herriko 30 ikaslerendako tokia zegoen eta haien artean sakandar batzuk zeuden. EH Pikler Loczy elkarteak mintegirako Ute Strub eta Sonia Kliass irakasleak ekarri zituen. Strub 1933an jaio zen, Berlinen, eta Elfriede Hengstenbergen ikaslea da. Fisioterapeuta izateaz aparte, Pikler-Loczy prestatzailea da ere eta egun, munduan barna prestakuntza saioak eskaintzen ditu. Berlinen duen Strandgut jolas espazioa. Kliass, berriz, 1964an jaio zen, Sao Paulon. Gironan bizi da eta sormen dantza eta gorputz adierazpeneko irakaslea da. Berak ere Pikler Loczyn prestakuntza jasotakoa da.

Parte-hartzaileek azaldu digutenez, "oso asteburu interesgarria izan zen. Ekarpen baliagarriak egin zituzten". **+www.guaixe.eus**

SAKANA

AEK-k 15 talde ditu, oraingoz

Sakanako AEK-k astelehenean jarriko du martxan aurtengo ikasturtea. Euskalduntzeko prest dauden sakandarrekin 15 talde osatu ditu oraingoz Sakanako AEK-k. Garagarrila erdialdera arte luzatuko den ikasturtean hasiera mailatik EGA bitartekoak daude. Autoikaskuntzarako aukera ere eskaintzen du AEK-k. Horren inguruan eta gainontzeko ikastaroen gainean informazioa nahi duenak 948 468 258 telefonora hots egin dezake.

Euskaltegia		Maila	Egunak	Ordutegia
Altsasu	Hasiera	Astelehenetik ostegunera		9:30etik 11:30era
Altsasu	Hasiera	Astelehenetik ostegunera		19:00etatik 21:00etara
Irurtzun	Hasiera	Astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala		15:30etik 17:00etara
Altsasu	A1	Astelehenetik ostegunera		9:30etik 11:30era
Altsasu	A1	Astelehenetik ostegunera		19:00etatik 21:00etara
Altsasu	A1+	Astelehena, astearte eta osteguna		9:30etik 11:30era
Altsasu	A2	Astelehenetik ostegunera		16:30etik 18:30era
Irurtzun	A2+	Astelehena, asteartea eta osteguna		10:00etatik 12:00etara
Altsasu	B1	Astelehenetik ostegunera		15:00etatik 16:30era
Etxarri A.	B1	Astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala		15:00etatik 16:30era
Altsasu	B2	Astelehenetik ostegunera		9:30etik 11:30era
Altsasu	B2+	Astelehenetik ostegunera		9:30etik 11:30era
Altsasu	B2	Astelehenetik ostegunera		17:00etatik 19:00etara
Altsasu	Euskalkia	Astelehena eta osteguna		19:30etik 22:00etara
Altsasu	EGA	Larunbata		9:30etik 13:30era

Altsasuko euskaltegiaren mustutzea hau berritu ondoren.

Nafarroako Gobernuak euskara ikastera animatu du

Komunikazio-kanpaina martxan jarri du helduen euskarazko irakaskuntza sustatzeko. Euskaltegi, akademia eta hizkuntza zentro ofizialetan euskara ikastera animatu ditu nafarrak

Euskaraz? Bai! Voy! Zatoz ikastera/Ven a aprender euskara lelopean Nafarroako Gobernuak komunikazio-kanpaina jarri du martxan. Kanpaina honekin helduen euskarazko irakaskuntza sustatu nahi du Nafarroako Gobernuak, eta, bide batez, nafarrak euskara ikastera animatu ditu publikoak eta ekimen sozialekoak diren Nafarroako 25 euskaltegietan, hizkuntza zentro ofizialetan eta akademietan. Jakina denez, irailean zabalik dago aipatu zentro hauetan matrikulazioa egiteko epea. Bestalde, Nafarroako Gobernuak gogoratu nahi du urrian 2016-2017 ikasturteko lehen hiruhilekorako laguntzen deialdia argitaratuko dela aurreikusten dela, 100.000 euroko aurrekontuarekin.

www.euskaraikasi.nafarroa.eus Kanpainaren barruan Nafarroako Gobernuak martxan jarri duen weba, Nafarroan euskara ikasteko dauden euskaltegi, hizkuntza zentro eta akademien berri emateko. 848 426 054 telefonoan ere eskatu daiteke informazioa, 8:30etik 14:30era.

Non erabili

GOIKO LOREDENDA
ALTSASU
30€tik gorako erosketetan landare bat opari. Eskaintza ez metagarria.

MARI JOSE ILEAPAINDEGIA
ARBIZU
Garbitu, moztu eta apaindu 26€.

FRUITIS FRUTA DENDA
IRURTZUN
%10eko deskontua fruitu tropikaletan.

EROSKI BIDAIAK
ALTSASU
%5eko beherapena, hiri hoteletako eta garraio hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria.

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA
URDIAIN
50 €ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

LARKA
ALTSASU
100 €tik gorako erosketengatik 10€ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

LASTAI GASOLINDEGIA
ALTSASU
0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

FORD GABIRONDO
ALTSASU
Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulanetan.

PATXI GALARZA
IRURTZUN
% 5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100€ rengatik txistorra opari.

www.guaixe.eus-en zerrenda osoa ikusgai

BAZKIDETZA 50€
948 564 275

» Izurdiaga

Saihesbideko lanen azken ukituak

Trenbide-pasa kentzeko lanak despeditzear daude

Agorrilaren 8az geroztik Izurdiagan ez dago trenbide pasarik. Hura kentzeko saihesbideko lanak, ordea, ez dira bukatu. Oses eraikuntza enpresako langileak lanei azken ukituak ematen ari dira. Garbiketa egiten eta makineria eramaten ere hasiak dira. Lanak guztiz despeditu aurretik Izurdiagako Kontzejuko kideak herritarren iritziak jasotzen ari dira. Joan den urteko agorrilaren akaberan hasitako lanek 2,63 milioi euroko inbertsioa eskatu dute.

Ibilgailuek trenbidea ez dute zeharkatu beharrik, eta haren gainetik pasako dira oinezkoak. Horretarako metalezko pasabide bat eraiki da. Auzokideak kexu dira trenbide pasa kendu zenean pasabidea eraiki gabe zegoelako eta horrek buelta handiagoa ematera behartu dituelako aldi batez. Oinezkoen pasabidearen estetikak ere zeresan handia eman du izurdiagarren artean.

Galtzada berriaren itxura.

Akordioa

Trenbie-pasa kentzeko saihesbidea egiterakoan trafikoa bideratzeko bi borobil egin dira. Haien argiteria gastua Izurdiagako Kontzejuak pagatzea nahi zuen gobernuak. 5.000 euro urtean, Izurdiagako aurtengo aurrekontua 6.900 eurokoa da. Kontzejuak bere bizkar halako gasturik ezin zuela hartu jakinarazi zuen eta aldeek akordioa lortu dute. Herriak bi argindar koadro ditu. Batak, Donibane eta San Migel auzoetako argiteria hartzen du eta, besteak, Geltoki auzokoa. Aldeek adostutakoaren arabera lehenengoaren faktura, gastu handiena duenarena, Izurdiagako Kontzejuak ordainduko du. Bigarrenarena, berriz, gobernuak.

Diru-laguntza

Trenbide-pasa kentzeko lanak baliatuta, Toki Administrazio Departamentuan baimena eskatu ondoren, Arakilgo Udalak Izurdiagako ur-horniketa sarea berritu zuen. Errepide azpian zegoen azpiegitura zaharrak ur ihes ugari izaten zituen. Horniketa behar bezala bermatzeko 68.003,99 euroko inbertsioa egin zuen udalak eta departamentuak udalari orain %70eko diru-laguntza eman diola jakinarazi du.

» Altsasu

Ekografoa osasun etxean urte akaberarako

Osasun Departamentuak ekografoak jartzeko aukeratutako zortzi osasun-etxeetako bat da Altsasukoa. Fernando Dominguez kontseilariak jakinarazi du urte akaberatik aurrera ekografiak egiteko aukera izanen dela. Osasunbideako buruak azaldu duenez, "lehen mailako arreta indartu" nahi da, "profesionalen erabakiak hartzeko gaitasuna hobetuz eta pazienteen irisgarritasuna hobetuz".

Ekografoak jarri aurretik Osasunbideak prestakuntza-ikastaroa eskainiko du, honako helburuekin: familiako medikuek beharrezkoa den trebezia eskuratzea ekografia klinikoaren erabileran, eta jardunbide horren erabilera lehen mailako arretan pixkanaka zabalduko duen kultura bat sortzea; hala, ekografia batekin abdomen aldean eta gihar nahiz eskeletoan lesio ohikoenak identifikatu ahalko dira.

Abantailak

Ekografia klinikoa azterketaren arazo zehatzerako da. Profesionalei tresna bat ematea da kontua eta, hari esker, barne-egiturak ikusi, neurtu eta ebaluatu daitezke, segurtasuna handituz eta erabakiak hartzeko gaitasuna hobetuz.

Fernando Dominguez kontseilaria Altsasuko osasun etxean egon zen.

Horrenbestez, pazienteek lehen mailako arretan izandako aurkikuntza ekografikoak baliatu ahalko dituzte diagnostikoaren prozesua nahiz prozesu terapeutikoa azkartzeko hala behar duten pazienteen kasuan.

8.704 ekografia

Garagarrila bitartean Nafarroan egin diren ekografiak, joan den urtean garai berean baino %14 gehiago.

» Irurtzun

Komunak erabilgarri

Ostiralaz geroztik zabalik daude komun publikoak. Foru plazan, udaletxearen zeharraldean zabalduta-ko atetik sartzen da haietara. 9:00etatik 21:00etara daude zabalik eta igandean pasa zuten aurreneko proba handia, Irurtzungo eta Arakilgo bertako ganadu azokara joandako askok erabili baitzuten.

» Satrustegi

Lanetarako diru-laguntza

Sareak eta zorua berritzeko lanak azaroan hastea aurreikusten da

Satrustegiko Kontzejuak eta Arakilgo Udalak lanak premiazkoak eta ezinbestekoak zirela adieraziz txostena aurkeztu zioten Nafarroako Gobernuari. Izan ere, urteak dira lurpeko sareen eta zoruaren egoera ez dela onena. 700.000 euroko aurrekontua dute lanek. Gobernuak, eginen diren lan guztiak ezin ditu diruz lagundu, baina besteen kostuaren %70eko ekarpena eginen du. Udalak lastailean eginen du lanak emateko deialdia. Haiek aurten hasi behar dute.

» Olatzagutia

Heldu den astean ludotekarako izen ematea zabalik

Ikasturte berriarekin batera Akelarre ludoteka ateak zabalduko ditu. Aurki izanen da hori, lastailaren 3an. Eta gurasoek euren txikiak ludotekan izena emateko epea astelehenetik ostiralera izanen dute. Horretarako, udaletxetik pasa beharko dute, 10:00etatik 13:00etara. Lastaila eta maiatza bitarteko zerbitzuagatik 33,5 euro ordaindu beharko da. Familia bereko bi haur edo gehiago badaude, berriz, 55. Ordainketa 012 edo 948 012 012 doako telefonoaren bidez edo udalaren kontuetan dirua sartuz egin daiteke. 4 urtetik aurrerako neska-mutilak joan daitezke ludotekara. Argibide gehiago behar izanez gero udaletxean jaso daitezke.

» Altsasu

Mahaiak eta aulkiak erosiko dira

Horixe erabaki zuten festetako herri bazkarian parte hartu zuten 800 bazkaltiarren erdiek baino gehiagok, Altsasuko herria herri bazkarietarako mahaiez eta aulkiz hornitzea. Izan ere, larunbateko bazkariko materiala Lakuntza, Urdiain edo Olatzagutiatik etorri baitzen. Antolatzaileek herri bazkarian bertan jakinarazi zuten bozketaren emaitza. Herri bazkariko antolatzaileek kontuak itxi eta balorazio bileraren ondoren argibide gehiago emanen dituztela jakinarazi dute.

SAKANA

Turismo sektorekoak, ikasten

Asteartean hasi zen Sakanako Garapen Agentziak eta Bidelagun turismo elkarteak elkarlanean Ezagutu gure ingurunea ikastaroa . Hiru irteeren bidez, turismo aldetik interesgarri diren Sakanako natura eta ondare baliabideak ezagutzeko aukera izanen da. Aurreneko saioa Aralarren egin zuten, hango trikuharriak, paisaiak eta bestelakoak ezagutzeko aukera izan zuten. Hurrengo bi irteeretan Urbasa-Andia natur parkea, hariztiak eta seinaleztatutako hainbat xenda bisitatuko dira. Parajeak ezagutzearekin batera, parte-hartzaileek turismo jasangarri zein naturaren babesa sustatzeko oinarrizko komunikazio estrategiak jasoko dituzte. Sakanako turismo sektoreko profesionalek haietan parte hartzera gonbidatuta daude. furbitarte@sakanagaratzen.com e-postan edo 948 117 344 telefono zenbakian egin daiteke izen ematea.

Institutuak logotipo berria du

Altsasuko institutuak lehenik izena aldatu zuen. Aurreko ikasturtean Aralarko Mikel Donea I institutua izatetik Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutua (BHI) izatera pasa zen. Izen aldaketak berarekin irudi aldaketa eskatzen zuen, ikasturte berriarekin mustu dutena. Horretarako, logotipoa aukeratzeko prozedura martxan jarri zuten. Ikastetxeko eta kanpoko proposamen ugari jaso zituzten.

Jose Ramon Anda eskultoreak, Olatz Aldasoro diseinatzaileak, plastika irakasle batek eta klaustrokide batek osatutako epaimahaiak guztiak aztertu eta, azkenean, Nerea Larraza ikasleak proposatutakoa aukeratu zuen. Lan hartan oinarrituta, moldaketa batzuk eginda, institutuaren logotipo berria sortu zen.

SAKANA

Industrian elkarlana bulkatzeko, adibideak

Asteazkenean, 8:45etik aurrera, Altsasuko Iortia kultur gunean jardunaldia eginen da. Enpresak nazioartera zabaldu edo egitasmo handietara iristeko adibideak emanen dira

Industriako eragileak deituak izan dira asteazkeneko jardunaldira.

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) antolatuta, Industrian Elkarlan Esperientziei buruzko jardunaldia eginen da. SGAko Aintzane Iriberri Berrostegietak azaldu digunez, "egoera globalizatu honi aurre egiteko elkarlana proiektuak aurrera ateratzeko modu bat da. Enpresek, gaur egun, handicap handi bat daukate: Sakanako enpresa txikiek ez daukate gaitasunik bezero handietara jotzeko eta nazioartean aritzeko. Kolaborazioa, hori gainditzeko modu bat izan daiteke".

Jardunaldira joaten direnak beste eskualdeetako industrien elkarlan esperientziak ezagutzeko aukera izanen dute; "Sakanako enpresek ikusi dezaten nola gainditu dezakegun egoera hori. Elkarrekin egin ditzakegun proiektuekin kanpora, indartsu, nola atera gaitezkeen. Elkarlan esperientzia horiek nola egiten diren ikasteko eta ikusteko zer egiten ari diren. Eta SGA halakoak aurrera ateratzeko lanean hari dela esateko" balioko du jardunaldiak. Hiru hizlari izanen dira eta entzuleek haiei galderak egiteko aukera izanen dute. "Hausnarketarako denbora ere utziko dugu".

"Edozeini oso interesgarria iruditu ahal zaion saio bat izanen da" antolatutakoa. Industria arloari zuzenduta dago bereziki jardunaldia, "energia edo autogintza klusterizazioan interesa duten enpresa handiei. Baina enpresa txiki eta ertainak ere. Badakit zaila dela enpresaren egunerokotasuna uztea. Baina animatzen ditut, zeren argi dago Sakanak enpresa txikien nazioartekotzean lan egiteko esparru handi bat duela. Horri nola heldu aztertzeko momentu egokia da orain". SGAn edozein proposamen, egitasmo edo ekintza aztertu eta aurrera eramateko "guztiz irekita" daudela azaldu du Irisarrik.

Sakanako Plan Estrategikoaren baitan, industrian bereziki, elkarlan proiektuak aztertu eta aurrera nola atera jasotzen duten akzioak daude. Paraleloan ari dira. "Enpresa txiki batzuekin taldetxo bat osatzen ari gara. Adibidez, nazioarteko azoketara elkarrekin joatea nola egin aztertzeko. Lehen fasean gaude". Bestalde, enpresa batekin "Sakanak dauzkan aukerak, merkatuak emanen dizkigun aukerak aztertzen. Esaterako, zer proiektu estrategiko aurrera atera dezakegun".

Industria@sakana-mank.com

E-posta horretan izena ematea nahikoa da jardunaldira joateko. Edo, asteazkenean bertan, 8:30etik aurrera Iortia kultur gunean.

Esperientziak, banan bana

Sodena

Nafarroako enpresa publikoko ordezkariak zabalduko dute jardunaldia. Irisarrik esan digunez, "haiek badakite urtetan zehar klusterizazio edo antzeko merkatuetan aritzen diren enpresen arteko asoziazio horiek ez direla oso indartsu aritu. Sodena bi proiektutan dabil orain". Batetik, energiaren arloko aurreklusterra sortu dute. "Energia arloko enpresak sartzen ari dira eta helu den urtean klusterra osatu eta diru-laguntzetara indartsu jotzeko. Gamesa lortzea lortu dute. Bertan Sakanako hiru enpresa dituen Naweco kontsortzioa dago (Laneko, Industrial Barranquesa eta Jatorman)". Irisarrik azaldu duenez, "horrelako foro batek elkarlan proiektu askoz gehiagotara jotzeko aukera ematen du". Bestea, autogintzako klusterra indartzea da. Wolkswagen dago barruan.

Irisarrik dioenez, "Sakanako enpresendako oso interesgarria da halako asoziazioak edo klusterrak sortzen edo indartzen ari direla ezagutzea. Beraiek ere aukera izan dezaten hara jotzeko eta horrek emanen ligukeen abantailak izateko".

GetGoierri

Goiekiren, Goierriko garapen agentziaren, esperientzia bat da GetGoierri. "Sakanarekin antzekotasun pixka bat izan dezaketen egoera dute haiek ere: enpresa txiki eta ertain oso txikiak, bertako enpresa handi batzuendako lan egiten dute baina kanpora ateratzeko aukerarik ez zuten".

Duela urte batzuk GetGoierri Basque Country marka sortu zuten: "zazpi-zortzi enpresa, haien arteko elkarlanaren bidez, beste proiektu batzuetara nola jo zezaketen aztertzen hasi ziren; bertako enpresa traktoreei elkarren arteko eskaintzak egiten edo azoketara jotzen".

Gaur egun marka azoka gehienetan dago. "Euren gaitasunak eta produktuak zabaltzen oso ondo dakite. Nazioartekotzea gainditzea lortu dute eta, gaur egun, merkatuan daude. Beste herrialdeetara merkataritza-misioak egiten dituzte (Mauritania, Brasil, Txina...)". Iriberrik aurreratu digunez SGA ibarreko enpresa txikiekin "halako proiektuak garatzen saiatzen ari gara. Goazen elkarlanean zein gaitasun ditugun, zer eratu dezakegun, zer produktu eta zer zerbitzu eman ditzakegun. Eta goazen ikustera nazioartekotze esperientzia horietan zein nolako indarra edo zer nolako proiektuak suertatu daitezkeen".

ON-Bideratu

Urola Garaiko garapen agentziako, Uggasako zuzendari Itziar Salaberriak haiek duten proiektu estrategiko bati buruzko azalpenak emanen ditu. "Haien gaitasunen, haien industria sarearen azterketa sakona egin zuten. Indartzeko zituzten puntuak ere. Eta On-Bideratu proiektu estrategikoa garatu zuten". Orto-protesiko merkatuan kokatu daitekeen egitasmo bat da. "Azpi-sektore horretan eta errehabilitazioan eta laguntza teknikoan prestakuntza, produktuak eratzea... sektore hori bertan garatu nahi dute". Esaterako, exoeskeleto baten prototipoa aurkeztuko dute, gizagorputzari kanpotik heltzen dion egitura edo makina. Gogoa Mobility Robots enpresak prototipoa diseinatu, industrializatu eta merkaturatzea, bertan Urola Garaian. Irisarrik aurreratu du Sakanan hausnarketa egiten ari direla, "zer nolako gaitasun, zer nolako sektoretan murgilduta gauden eta zer nolako fokoak indartu ditzakegun. Proiektu estrategikoen bilaketan gaude beste enpresa batekin". Halako esperientzien berri emanez, "hutsik daudenmerkatua edo halako produktuak eratzearen bidea nola egin daitekeen jendeak ezagutzea oso interesgarria da".

SAKANA



Lizarragako bista.

Alokairu babestua eskaintzeko gobernuak hutsik dauden etxebizitzak nahi ditu

Alokairu-poltsa horrek jabeei errentaren kobrantza zehatza eta higiezina egoera onean itzultzea bermatzen die

Eskubide Sozialetako lehendakariordе Miguel Laparrak jakinarazi du Nafarroako Gobernuak hutsik dauden etxebizitzak eskuratu nahi dituela, gero Nasuvinsa enpresa publikoak kudeatutako poltsaren bidez babestutako alokairura bideratzeko. Gogora ekarri behar da alokairu-poltsa horrek etxebizitzetako jabeei errentaren kobrantza zehatza bermatzen diela, higiezina egoera onean itzultzea eta Nasuvinsak etxeko arrisku anitzeko aseguru bat kontratatzea (edukitzailearena), etxebizitzan izan daitezkeen ezbeharrak estaltzen dituena.

Berriki egin den lege aldaketa baten arabera, etxebizitza bat hutsik duen edozein pertsonak alokairu-poltsa horretan sar dezake, haren kokapena alde batera utzita, baldin eta eskatzaile-erroldan alokairuko etxebizitza-eskatzaile gisa gutxienez pertsona bat jasotzen den udalerri batean badago. Horretarako, Iruñeko Nasuvinsaren bulegoetara jo behar dute (Iruñeko San Jorge etorbidea, 8), langile teknikoek etxebizitzaren balorazioa eta inbentarioa egin dezaten. Interesdunek informazio gehiago 848 420 601 telefono-zenbakian eta www.vivienda.navarra.es webgunean eska dezakete.

Higiezinak bizigarritasun-zedula indarrean izan behar du, eta ur, argindar eta gasaren hornidurak alta emanda; horretaz aparte, sukaldeko oinarrizko ekipamendu bat eduki behar du, eta etxebizitzan dauden errolda guztiak baliogabetzea. Igogailua ez da ezinbesteko baldintza bat, baldintzen azken aldaketaren ondoren, baldin eta etxebizitza egokia bada.

Ez dira baldintza ezberdinak eskatzen udalerriaren arabera, nahiz eta Nafarroako Gobernuak etxebizitzako jabeari ordaindutako prezioa ezberdina den etxebizitza dagoen udalerriaren arabera: Iruñerrian, Tuteran, Lizarran eta Tafallan metro karratuko 5 euro dira; 5.000 eta 10:000 biztanleren arteko herrietan, Altsasun, esaterako, 4 euro m2ko eta 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan 3 euro m2ko.

» Etxarri Aranatz

Beilatoki lizentzia hizketa-gai

Aldamenek tokiz aldatzeko sinadura bilketa hasi dute. Udalak dio legediari jarraituz eman dela baimena

Banco Vasconia zen lokala har dezake beilatokiak.

Nagusia kaleko 2., Eraga etorbideko 1., Artola 2. eta 4. kalean dauden etxebizitzen bizilagunek eta Etxarri Aranazko Jubilatuen Elkarteak sinadura bilketa jarri dute martxan. Haren bidez udalari bi eskaera egin nahi dizkiote: Nagusia kaleko 2. zenbakiaren beheko aldean jarri nahi den beilatokiaren kokapena aldatzea eta hildakoen inguruko osasun udal ordenantza bat sortzea, non beilatoki/tanatorioen instalakuntza herritik kanpo arautuko duen. Etxarriarrak sinatzera gonbidatu dituzte.

Aldamenek pentsatzen dute zerbitzua "herriarendako eta inguruko herriendako beharrezkoa dela, eta ez dauka inork bere gain hartu beharrik denona dena, bizi kalitatean eragiten duelako maila askotan". Egitasmoa "komunitatearen ongizatearen atzera pauso bat da". Ez dute "bidezkoa" jotzen "bizikidetza aldatzea, herriarekin kontsultatu gabe. Eta kontsulta baten bidez antolatu, moldatu, egokitu eta denon onespenerako erabakiak hartu". Bera, Txantrea eta Uharte-Iruñeko kasuak gogorarazi dituzte: "udalak beste kokapen bat bilatzen ari die". Horregatik udalean beilatokiko lanak gelditu "eta alferrikako gastuak ekiditeko" eskaera bat aurkeztu dute.

Udalak Izarralore enpresaren beilatokia eraikitzeko eskaera onartu zuen. Sinadura bilketa sustatu duten etxarriarrengan "kezka" sortu du eta euren "gaitzespena" adierazi dute; "bizilagunok lekua ez dela aproposa kontsideratzen dugu eta beste leku bat bilatu behar litzatekeela pentsatzen dugu". Horrekin batera, Arartekoak gomendioa gogorarazi dute: "etxebizitzen beheko solairuetan, beilatokiak debekatzea iradokitzen du eta beste kokapen bat bilatzea".

Argudioak

Sinadura bilketaren sustatzaileek diotenez, "pertsona bat hiltzen denean, maitatzen dutenek giro lasaia, barea behar dutela lagun maitea agurtzeko ulertzen dugu". Trafiko gehien duen kale Nagusia baldintza horiek ez dituela betetzen uste dute. Aldi berean, inguruan nahikoa aparkalekurik ez dagoela nabarmendu dute. "Ez dago leku ireki bat non hitz egin, erlaxatu, ... horrek, espaloiak eta bidea bera ere hartzera behartuko luke".

Auzokideek diotenez, beilatokiak euren eguneroko bizitza baldintzatuko lukeela: "musika entzun, aspiragailua pasa eta horrelako gauza naturaletan mugatzen du. Hildakoaren senide eta lagunekin topo egiten da eta aldiro behartuta dago saminarekin bizitzera. Eraikuntzaren inguruko guneetan, adineko eta haurren mugimendua ere baldintzatzen du". Bizilagunek pentsatzen dute "beilatoki bat kokatzeak berez gaitzespen eta ezinegona sortzen duela". Ez dute egoki jotzen etxebizitzen beheko aldean kokatzea. "Trabak sortzen baditu bizilagun gehienengan eta bizikidetza soziala hondatzen badu instalazioen legalitatea ez da administrazioak aintzat hartu behar duen bakarra". Haien ustez, "herritarren interesen gainetik ezin dute enpresen merkataritza jarduerak egon, ezta horien etika eta sentsibilitatearekin jolastu ere".

Osasun arloan ere bizilagunek kezka dute. Osasun etxe eta ospitaleen modura beilatokiak eta tanatorioak ere aparteko eraikinetan egon beharko luketela diote. Proposatutako kokapenean "gaixotasunak sortzeko gunea dela uste dugu". Lokala egokituta ez dagoela ere badiote. Aireztapen hodiekin bizi beharra edo saneatze sare bereiztuta ez izatea nabarmendu dute. "Higienerako materialak aparteko hondakinen kudeaketa behar luke, komunitateak sortzen dituenetatik kanpo".

Etxarri Aranazko jubilatu elkartearen egoitza "beilatokiaren aurrean" dago, "non desadostasuna eta beraienganako errespetu falta adierazi dute". Bestetik, bizilagunek beilatokia "bukaeran" tanatorio bihurtuko den zalantza agertu dute: "ez dugu oso argi ez duten beilatokia tanatorio moduan erabiliko, non hildakoekin kontaktua dagoen".

Udalaren azalpena

Gaiaz galdetuta Etxarri Aranazko alkate Eneka Maiz Ulaiarrek, hasteko, halako jarduerak arautzen dituen Nafarroako legedi orokorra aipatu du. Batetik, 297/2001 Hileta Osasun Araudiko Foru Dekretua, beilatokiak, tanatorioak, errausketak, garraioak eta beste arautzen dituenak. Eta, bestetik, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen Ingurumenaren Babeserako Interbentziorako 4/2005 Foru Legea (tabernen soinua, jatetxeen keak, beilatokiak...). Arau horiek Nafarroa guztirako berdinak direla eta herrialde guztian indarrean daudela gaineratu du. Horiek mugatzeko Etxarri Aranazko Udalak ez du inolako ordenantzarik, Nafarroako beste inon ez dagoen moduan.

Udalak beilatokia jartzeko baldintza administratiboak betetzen zituen eskaera jaso zuen, Osasun Departamentuaren eta udal arkitektoaren aldeko txostena zituena. "Osasun eta hirigintza baldintzak betetzen ditu. Eskaerak araudia betetzen du eta, horregatik, jaso du lizentzia. Legea betetzen duen aktibitate bat bertan behera uzteko eskumenik ez du udalak; hala dioen epairik edo aldeen arteko adostasunik ez badago". Bestelako jokabide bat izatea prebarikazioa litzatekeela nabarmendu du alkateak. "Beste kontu bat da ea legedia aldatu beharko litzatekeen edo ez. Hori beste debate bat da. Sakonekoa". Oraingoz udalak ez du horretarako eskaerarik jaso.

Aldi berean, udaletik argi utzi nahi izan dute beilatokirako baimena eman dela, eta ez tanatorioa jartzeko. Halakoetan hildakoen estetika zaintzeko praktikak besterik ez direla egiten azpimarratu dute, eta ez da tanatopraxia praktikarik egiten. Foru Legeak beilatokiak "jarduera ez kaltegarritzat" jotzen ditu lizentziak ematerakoan. Tanatorioetan, ordea, bestelako praktikak egiten direnez, "jarduera sailkatu" baten lizentzia beharko lukeela gaineratu dute.

Alkateak azaldu digu udala aldamenekoen ordezkariekin elkartu dela. "Beste edozein eskaerarekin gertatuko litzatekeen moduan, zuzeneko harremana dugu eta batzar irekiak egiteko prestutasuna ere azaldu diegu sustatzaileei". Izan ere, Etxarri Aranazko Udala udal aholkularien, eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta Toki Administrazioaren teknikarien aholkularitza jasotzen ari da. Azkenik, udalak jakinarazi du agur zibilak arautzeko ordenantzaren zirriborroa esku artean duela.

» Altsasu

Udalak web orria berritu du

Joan den asteaz geroztik Altsasuko Udalak web berritua du. www.alsasua.net ataria orain "askoz ere interaktiboagoa eta irisgarriagoa da. Izan ere, informatika sistemez arduratzen den Animsako enpresa publikoko kide garen udalen artean jatorrizko web orria zuen bakarretako bat zen Altsasu", azaldu du Javier Ollo Martinezek. Alkateak gaineratu duenez, aurreko web orrian "udal informazioa zabaltzeko ez zituen ez udalaren ezta altsasuarren premiak asetzen".

Ollok nabarmendu duenez, web orri berrituaren atal nabarmenetako bat Alkateak erantzuten du izenekoa da. "Haren bidez erabiltzaileek euren galderak edo kexak egin ditzakete eta alkateak zuzenean erantzunen ditu". Alkateak aukera berria "udal jarduneangakoa den gardentasunean sakontzen duen interakzio tresna da". Ollok, bestalde, nabarmendu du web orriaren azalean berriak modu erakargarriagoan ikus daitezkeela orain.

SAKANA

Irrati bidezko Internet zerbitzua hiru hilabete barru

Zuntz optikoa iritsi bitartean aldi baterako konponbidea izanen da. Oraindik ez dago zehaztuta hasieratik Sakana guztira iritsiko den

Makina bat udal ordezkari eta zenbait eragileren ordezkariak bildu ziren herenegun Sakanako Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan. Sakanako Garapen Agentziak (SGA) deitu zituen, hark Guifinet fundazioarekin batera ibarrerako irrati bidezko Internet sarearen proposamenaren berri emateko. Jakinarazi zutenez, tarteko konponbidea da hiru hilabete barru martxan jarriko dena, azken helburua ibarrean barna herri-zuntz optiko sareak zabaltzea baita. SGAk proposamena telekomunikazioarekin zerikusia duten arloetan (antena-jartzaile, elektrizitatea, informatika…) lanpostua sortu edo finkatzeko aukera gisa ikusten du.

Herenegun goizean bertan, bai SGAko bai Guifineteko ordezkariak Nafarroako Gobernukoeekin sei orduz bilduta egon ziren. Sakanako proposamenak Nafarroako Telekomunikazio Plan berriarekin nola txertatzen diren eta zein finantziazio bide izan ditzakeen argitzen.

Sakanarako telekomunikazio proposamenaren aurkezpena.

gertutik >>

Iker Manterola

Sakanako Garapen Agentzia

Sakanan gaur egun nola dago telekomunikazio arloa?
Nafarroa guztian bezala. Nahiko ongi hornituta dauden Iruñea eta Erribera aldea kenduta, nahiko gaizki. Gure proposamena lantzen hasi ginenean, justu Nafarroako Gobernuak herrialderako telekomunikazioen plan estrategikoa abian jarri zuen. Haien diagnosia gurearekin bat dator, bi eskualde horiek kenduta hutsune nabarmenak daude. Gainera, Europatik 2020rako heldu diren telekomunikazio helburuetatik oso urrun gaude.
Bai herri, bai enpresa baita bestelako eragileen aldetik benetako beharrak ikusten ziren. Gaur egun indarrean diren operadore handien aldetik behar horiek asetzeko epe ertainera inolako irtenbiderik ikusten ez zenez, guk proposamena egiteko bidea egin dugu.

Nahiko gaizki. Zer esan nahi du?
Denok ulertzeko moduko adibide bat jartzeagatik: Sakanako enpresa batek esan digu 2 MBko artxiboa (argazki bat, plano txar bat) duen e-posta mezua bidaltzeko arazoak dituela. Etxetik kostatzea, baina enpresa bati ez. Hortik lan egin behar du. Gainera, kontutan hartuta industria 4.0 deitzen zaion hori telekomunikazioan oinarritutako industria bat izanen dela, etorkizun ertainean heldu den horretarako gure enpresek prest egon behar dute. Baldintza horiek jartzeko gaur bertan lanean hasi behar dugu.

Enpresek lehiakortasuna galdu eta sakandarrek, orokorrean, munduarekin lotura, ez?
Bai. Europan zera ari dira esaten: landa eremuek biztanleak bertan finkatzeko izan dezaketen desabantaila bat telekomunikazioen gabezia izan daiteke. Puntu nagusietako bat. Eta ekonomia gero eta gehiago digitalizatzen doa. Landa eremuetan jarduera ekonomikoa sortzeko aukera berriak irekitzen dira. Jakina, digitalizazio horretarako sarbiderik ez badugu, hortik kanpo geratuko ginateke.

Proposamenarekin hori zuzendu nahi duzue.
Mahai gainean proposamen zehatz egingarri bat jarri dugu. (Asteazken goizean) Nafarroako Telekomunikazio Zuzendari Orokorrarekin eta Nasertic enpresa publikoko ordezkariekin bilduta egon gara. Egin nahi duguna, haiek egin nahi dituztenekin kontrastatzeko eta nolabaiteko elkarlan bat abian jartzeko bilera izan da. Plan estrategikoa abian jarri zutenetik haiekin elkarrizketak eta bilerak izaten ari gara. Baina proposamen zehatz hau aurrera nola eraman eta zein finantziazio izan dezakeen aztertzen aritu gara.
Europak ezartzen dituen konexio helburuetarako tresna zuntz optikoa da. Baina horrek ez du kentzen helburu horietara iritsi bitartean, Internet behar denez, irrati-frekuentzia bitartez, wifi bidezko lotura ematea.

Zuntz optikoa iritsi bitartean, irrati bidezko Interneta, beraz.
Behintzat aukera hori ematea gure gutxieneko konexio behar horiek asetzeko. Beti ere, ekonomia eta kalitate baldintza duinekin. Hiriekin konparatuz landa eremuetan gaudenok ez gaitezen izan gehien ordaindu eta baldintzarik txarrenak ditugunak. Guifinet komun eredu horretan kokatzen diren hiru operadore txiki zein azpiegitura beharko genituzke, epeak, zein kalitate lukeen, prezioa... proposatzen ari dira. Proposatzen duguna da zerbitzu hori hiru hilabetera emateko moduan egotea. Ez dakigu Sakana guztira iritsiko litzatekeen, baina behintzat hiru hilabete barru puntu batzuetan martxan jartzeko moduan izanen litzateke.

Nola eginen litzateke? Horrek azpiegitura eskatzen duelako!
Antena sare bat eskatuko luke. Sare horretatik herri edo erabiltzaile bakoitzak hargailu bat izan beharko luke. Horrekin ere bide egiten joan gaitezke. Laister toki erakundeendako inbertsio legea onartuko du Nafarroako Gobernuak. Han herrien azpiegituretarako finantziazioa ere aurreikusten da. Herriren baten aukera izan daiteke: zuntz optikoa horrela heldu daiteke, baina bitartean irrati bidez bide egiten joan gaitezke.
Beti ere, kontuan izanda epe motzeko konponbide bat dela. Epe luzera, nahita ez, zuntz optikoa. Azkenean, mantenu lan txikiagoak ditu, askoz hobea da, gaitasun gehiago izan dezakelako...

Kostu bat izanen du. Nafarroako Gobernuak zein jarrera du?
Entzuteko, behintzat, oso jarrera irekia dute. Sei orduko bilera izan da (asteazkenean), hainbat galdera sortu dira. Ideiak, gutxi gorabehera, bat egin arren, hori nola gauzatu. Landu beharreko hainbat elementu daude. Beraiek, gehien bat, azpiegitura orokorrak finantzatzeko diru-laguntzak aurreikusten dituzte. Etxeetara iristeko eta beste elementuetarako ikusi beharko da zein finantzazio lortu dezakegun.
Baina komuneko telekomunikazioak duen gauzetako bat da gastuaren kargu denok eginen garela. Horrek ez du esan nahi garesti aterako zaigunik. 10 MB-erako proposatzen ari diren gastuak 30 euroren azpikoak dira. Hori oraindik lantzeko dago, baina inguru horretan ibiliko da. Azpiegiturak komunak izanen dira, baina erabiltzaileek operadore ezberdinak aukeratzeko parada izanen dute, prezio edo zerbitzu ezberdinekin. Azpiegiturak eginak daudenean informazioa zabalduko dugu eta interesatua dagoen oro aukera izanen du.

Hau nonbaiten probatuta dago?
Bai. Katalunian oso sare zabala dute. Badaude eskualdeak zuntz optikoaren herri-sareak, komunak, zabaldu dutenak. Usonan eta beste hainbat tokitan zuntza dagoeneko zabaldu dute. Jada ez da irrati-frekuentzia bidez. Komuneko zuntz-optiko sare hori denena da: toki erakundeek, enpresek, erabiltzaileek parte hartzen dute. Herri-basoetan bezala, hor ere arauak daude. Ezin da edozein sartu. Ongi funtzionatzeko denek adostutako arauak errespetatu behar da. Jarraipena egiten zaio.

Kataluniako eskarmentuarekin, hemen ere ezarri daiteke?
Bai. Beti esaten duguna: beste egoera batzuk dira, eta horretara ere moldatzen eta ikasten joan beharko gara. Guk Sakanarendako aukera bat dela ikusten dugu: behar bati erantzuten diolako eta aukera bat sortzen duelako. Katalunian eredu hau zabaldu den lekutan tokiko operadore txikien sorrera egon da; 5, 6, 10 langile dituen enpresa bat sortu da. Kataluniarrek esan digutenez toki batzuetan enpresa ertain batzuk sortu dira, baina biztanle gutxiko tokitan herriko informatika dendakoak zerbitzu hori eskaintzea. Bi zerbitzuekin nolabait lanpostua aurrera atera, gertuko, konfiantzazko eta kalitatezko zerbitzu egokia ematea da. Guretako hori oso interesgarria da: lanpostuak sortu edo mantentzeko aukera ematen du.
Gainera, aurrera begira, 4.0 industriaren eta ekonomia digitalaren inguruan lanketa bat planteatzen ari bagara, guri interesatzen zaigu eskualdean jende prestatua izatea; etorriko diren moldaketa eta teknologia berrikuntzetarako irtenbideak edo lan aukera berriak lantzeko.

Hiru eragile aipatu dituzu. Gehiago batzeko aukera izanen da?
Definizioz sare irekia da hau. Edozeinek parte hartu dezake. Hori bai, parte hartzen dutenek baldintza batzuk betetzeko konpromisoa hartzen dute. Denok adostuak. Batez ere, erabilera iraunkorra izan dadin. Komuna.

Honek nolabaiteko telekomunikazio burujabetza ekarriko dio Sakanari?
Bai, neurri handi batean, bai. Zeren telekomunikazio operadore bakarra iristen den tokian hark jartzen ditu baldintzak, bai kalitatea, bai prezioa; ez du inongo lehiarik. Bertako enpresa batzuk esaten ziguten: "kalitate eskasa izateaz aparte, horregatik diru asko pagatzen ari gara. Iruñean zergatik izan dezakete kalitate duin bat prezio onean eta guk hemen asko ordainduta ere kalitate eskasarekin moldatu behar dugu!"

» Egiarreta

Asteburua festei emana

Hiru eguneko ospakizunak dituzte aurretik egiarretarrek. Aurten, gainera, bisitari gehiago izanen dituzte, Jaibus zerbitzua parrandazaleak batera eta bestera eramanen baititu larunbat gauean.

Egitaraua

>> Irailak 23, ostirala
15:00etan Herri bazkaria.
16:00etan Miguel eta bere akordeoia.
17:00etan Mus, briska eta partxis lehiaketa.
17:30ean Puzgarriak eta buruhaundiak.
18:00etan Festen hasierako suziria.
20:00etan Dantzaldia Modestorekin.
22:00etan Herri afaria.
00:00etan Dantzaldia Modestorekin.

>> Irailak 24, larunbata
11:30ean Jokoak, puzgarriak eta buruhaundiak.
13:00etan Bermuta.
17:00etan Puzgarriak eta buruhaundiak.
17:30ean Gorriti eta bere animaliak.
19:00etan Txokolate-jana.
19:30ean Dantzaldia Modestorekin.
22:00ean Gazte afaria.
23:59ean Txep-en kontzertua.
1:00etan Dantzaldia Modestorekin.

>> Irailak 25, igandea
11:00etan Meza.
12:00etan Otamena eta herriko helduei omenaldia.
12:30ean Bermuta.
12:30ean Puzgarriak eta buruhaundiak.
16:30ean Platerrei tiroa.
19:00etan Dantzaldia Modestorekin.
19:30ean Tortila eta txistorra dastaketa.
21:30ean Hau pena nik!

» Ekai

Herritarrak biltzeko eguna

San Migel ospakizunak larunbatera aurreratu dituzte Ekain. Bihar, 15:00etan, bazkaltzera eta, 22:00etan, afaltzera elkartuko dira. 60 bat izaten dira biltzen diren herritarrak eta dantzaldiaz gozatzeko aukera ere izanen dute. Igandean, 11:45eko mezaren ondoren, ekaitarrak otamenean elkartuko dira atzera ere.

» Uharte Arakil

Sanmigelak hemen dira

San Migelen omenezko ospakizunak gaur hasi eta larunbat goizaldera arte luzatuko dira Uharte Arakilen.

Egitaraua

>> Irailak 29, osteguna
12:00etan Festei hasiera emanen dion suziria. Jarraian, auzatea plazan.
12:30ean Uharte Arakilgo konpartsa.
14:30ean Koadrilen arteko VI. Paella lehiaketa. Udalak ardoa, ogia, mahaiak eta aulkiak jarriko ditu.
16:00etatik 19:00etara Wypeout eta haurrendako jolas parkea.
20:00etan Auzatea.
20:00etan Play Back lehiaketa. Izena ordu erdi baino lehen egin behar da.
00:30etik 3:30etara Dantzaldia Jai Guateque Tirri & Tery.

» Olatzagutia

Sanmigelak berritasunekin

San Migel plazan denetariko postuak izanen dira.

San Migelen omenezko ospakizunak asteburua eta sainduaren eguna, osteguna, hartuko dute Olatzagutian. Igande goizean, ohiko artisau azokarekin batera, bi berritasun izanen dira. Batetik, Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak antolatutako Munduko Arrozak ekimena. Goizean zehar Marokon, Senegalen, Gambian, Brasilen, Bulgarian eta Olatzagutian arroza nola prestatzen diren ezagutzeko aukera izanen da. Guztiak prest daudenean, 14:00ak aldera, prestatutako arroza dastatzeko aukera izanen dute azokara hurbildutako guztiak. Arroz aleen modura, nor bere zaporearekin, baina denak berdinak garela adierazi nahi du ekimenak.

Horretaz aparte, Immigrazio Zerbitzuak sentsibilizazio txokoa jarriko du. Gorputz atalak hennarekin edo Senegalgo trentzekin edertzeko aukera ere izanen da. Gainera, munduko hizkuntzen mapa-jolasa ikusgai izanen da.

Artisau garagardoa

Azken urteetan bai Euskal Herrian bai inguruetan ere asko zabaldu da artisau garagardoa egiteko zaletasuna. Batzuk euren kontsumorako ekoizten dute, baina batean eta bestean mikro-garagardotegi berriak sortu dira. Artisauen lan zaindua eta kalitatezko gaien aukeraketa ekoizpen teknika eta makineria sofistikatuekin uztartzen dituzte.

Olatzagutia domekan joera horren erakusleiho bihurtuko da, aurreneko artisau garagardo azoka hartuko baitu. Euskal bost ekoizle izanen dira euren garagardoa ezagutzera ematen: Olbea (Agurain), Falken brewing có (Gasteiz), Bidasoa basque brewery (Hernani), Byra (Arabako Lautada) eta Baias (Oiardo). Bost ekoizle horiek edatekoak dastatu eta erosteko aukera izanen da. Animosoenak halako garagardoak nola egiten diren ikasteko aukera izanen dute, 13:00etan eta 17:30ean tailer bana izanen baita.

Egitaraua

>> Irailak 23, ostirala
19:30ean Txupinazoa kultur etxetik. Erraldoiak eta buruhaundiak.
20:00etan Japoniar bonbak, Intsumisio plazan.
20:00etan Banaketa, San Migel plazan.
20:30etik 22:00etara Mariatxi Los Txamukos, San Migel plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.

>> Irailak 24, larunbata
9:00etan Dianak Olatzagutiako eta Ziordiko abesbatzekin.
9:00etan Olatzagutia-Urbasa X. Mendi lasterketa.
13:30ean Sari banaketa.
14:30ean Herri bazkaria,areto futboleko pistan (Erburuan euria eginez gero).
16:30etik 19:00etara Jolas parkea, areto futboleko pistan (Erburuan euria eginez gero).
19:00etan Apar festa, areto futboleko pistan.
20:00etan Japoniar bonbak, Intsumisio plazan.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Trikidantz taldearekin.
20:00etan Banaketa, San Migel plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00etatik 3:00etara Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

>> Irailak 25, domeka
11:00etatik 14:30era Artisau azoka, San Migel plazan (euriarekin, Erburuan). Munduko Arrozak. Artisau garagardoak.
11:00etatik 13:00etara Txu-txu trena, Intsumisio plazatik abiatuta.
11:30ean Kalejira, erraldoi eta buruhandien konpartsa eta Sakanako Trikitilariak.
12:00etatik 14:00etara Txalaparta tailerra.
13:00etan Garagardoa egiteko tailerra.
14:00etan Munduko Arrozen dastaketa.
16:00etatik 19:00etara Txu-txu trena, Intsumisio plazatik abiatuta.
17:30ean Garagardoa egiteko tailerra.
18:00etan Emakumezkoen pala partida: Muneta-Araiztegi / Aristorena-Ruiz de Larramendi. Esku pilota: Irurita-Espinal / Eskiroz-Elizalde.
19:00etatik 21:00etara Dantzaldia Raizti djrekin, San Migel plazan.
20:00etan Japoniar bonbak, Intsumisio plazan.
20:00etan Banaketa, San Migel plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.

>> Irailak 29, osteguna
11:30etik 13:30era Ogia egiteko sormen tailerra, San Migel plazan (euriarekin, frontoian).
18:00etan Ventrimagik, sabel-hiztuna eta magia ikuskizuna, San Migel plazan (euriarekin, kultur etxean).
19:30ean Japoniar bonbak, Intsumisio plazan.
20:00etan Banaketa, San Migel plazan.

Festa egunen arteko eskaintza

San Migel ospakizunak asteburu eta ostegun artean banatu dituzte Olatzagutian. Bitarteko egunetarako udalaren Kultura Zerbitzuak eskaintza egin du. Asteartean, 20:00etan, Groenlandia zeharkatu zuten hiru nafarren dokumentala ikusteko aukera izanen da. Fernando Belzunze, Fermin Izko eta Angel Zabalza Groenlandian eski eta kometekin egindako hego-ipar ibilaldia kontatzen du ordu bateko lanak. 2.400 km autonomia osoarekin, Narsaqetik Qaanaapera (Thule). 35 egun eman zituzten planetako leku zailenetariko batean, hotza eta haizea protagonista diren lekuan. Abentura zoragarri bat, bitxikeria, istripu, paisai liluragarri eta gauza askoz gehiagoz betea.

Hurrengo egunean, asteazkenean, 20:00etan Arturo Cisneros zuzendari nafarraren *Mami, ya se donde está el dinero!* filma ikusteko aukera izanen da. Krisiaren eraginez, ez lanik, ez dirurik ezta proiekturik ez zuenez, zuzendariak gurasoen etxera, Ezkarotzera, bueltatu behar izan zuen bizitzera. Krisiaren eraginez, dirua nola galdu zitekeen galdetu zion amak eta Cisnerosek, erantzuna ematera behartuta, munduko hainbat aditurengana erantzun eske jo zuen. Gertutasuna eta ironia krisi izeneko iruzur handi horren gakoak emateko. Aurtengo Goya sarietarako 6 hautagaitza lortu ditu.

SAKANA

San Migelek Aralar beteko du

San Migel Goiaingeruaren eguna ostegunean ospatuko da eta horrek Aralarko monasteriora jendetza erakarriko du. Fededunek lau elizkizun izanen dituzte goizean: 9:00etan, 10:00etan, 11:00etan eta 12:30ean; azken hori meza nagusia izanen da. Arratsaldean, 18:00etan, beste meza bat izanen da. Elizkizunen ondoren, Aralarko aingeruaren irudia gurtzeko aukera izanen da.

Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiatik beste ospakizun berezi baten berri eman dute: hileta meza gregorianoa, lastailaren 2an, 12:30ean, izanen dena; eta, 17:00etan, bezpera gregoriano abestuak. Hildako Aralarko kofrade, anai eta ongileen aldeko elizkizunak izanen dira egun horretakoak.

» Altsasu

Parte-hartzaile guztiendako bazkaria izan zen dastaketaren ondoren.

GRUPO TANATORIO IRACHE
TANATORIO TALDEA
948 197 070
Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza
www.tanatoriosirache.com

Joaquín Urkia Arratibel

Egun handira arte

Mank sakana

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.
Bidali mezua eskelak@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK | 2 TEKNOLOGIA | 3 LANA/NEGOZIOAK | 4 DENETARIK | 5 IBILGAILUAK | 6 HARREMANAK | 7 AISIA/KIROLA | 8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, lan eskaintzak 11€+ BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK

SALDU

Etxarri Aranatzen pisu bat salgai, 84 m² erabilgarriak, berrituta eta eguzkitsua. Alokatzeko aukera. Nire telefonoa 654 23 41 02 da.

LANA | NEGOZIOAK

LANA

LAN ESKAINTZAK

Etxarri Aranazko Udalak, danza latindarrak ikastaroa emateko irakaslea behar du. Interesa baduzu, curriculuma bidali kultura@etxarriaranatz.eus email helbidera edota 606 239 008 telefonora deitu.

Etxarri Aranazko Gure Ametsa jubilatuen elkarteak taberna kudeatzeko pertsona bat behar du. Interesatuek irailaren 25a baino lehen eta arratsaldeko 19:00etatik 20:30era, joan beharko dute elkartera.

IKASTAROAK

Nafar Lansare-k ikastaro hauek antolatu ditu Altsasuko LH institutoan: CP2- Txirbil-harroketazko mekanizazioa eta CP2- Mantentze-lanak eta muntaia mekanikoa industria-tresneriendako. Hasiera irailean. Badaude plazak libre. Galdetu Enplegu zerbitzuan.

Zer egin liburuekin. Yolanda Arrieta idazleak umeekin liburuak irakurtzen nola aritu azalduko du lastailaren 1ean, larunbatean 10:00etatik 13:00etara Sakanako Mankomunitateak Lakuntzan duen egoitzan. Izena emateko: euskara1@sakana-mank.eus e-posta helbidera. Matrikula 10 €. Plaza mugatuak.

Irurtzungo ikastaroak: Antzerki tailerra, Irakurketa taldea, Marrazketa eta pintura, Mantentze-gimnasia, Gorputz jarrera, Pilatesa, Bizkortzea/gap, Zumba, Kirol entrenamendua eta Spinning-a. Izen-ematea irailaren 26ra arte. Informazioa www.irurtzun.es web orrian.

Etxarri Aranazko udal ikastaroak: soinketa lasaia, sendabelarrak, pintura, dantza latindarrak, yoga, zirkoa, zunba, aerobik eta tonifikazioa, haurrendako zirkoa. Izen-ematea hilaren 26ra arte dago zabalik. Informazioa www.etxarriaranatz.eus.

Arakilgo Udaleko ikastaroak: eskulanak, batukada, elikadura eta sukaldaritza, pilates, yoga, zunba, gimnasia eta latinar dantzak. Izen-emateko epea irailak 28, Arakilgo udaletxean. Tel 948 500 101 edo info@arakil.net e-postaren bidez.

OPATUTAKOAK/ GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Maria Eugenia arrandegiaren aurrean sandalia bat opatu zen abuztuan, gorria eta urdina. Galdu duenak Guaixen dago. Tel 948 56 42 75 .

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objetu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

OHARRAK

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslariek aldeko abenduaren 30 eki ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119.

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia. Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoeuskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxauzia gaztelua euskaldunentzat berreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965.

Volkswageneko langileendako deia. Iruñeko lantegiak "zure elkartasun proiektua" deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proeiktua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundaziotik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Errefuxiatuendako material bilketa. Adin guztiendako arropak, haurrendako eskola materiala eta jakiak biltzen ditu AHNAk. Altsasun, Frontoi zeharbidearen 14an udalak duen bajeran, astelehen eta ostiraletan, 11:00etatik 14:00etara, eta Etxarri Aranatzen, udaletxeko estalopeko eskubiko atean, astearte eta ostiraletan 17:00etatik 19:00etara.

Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarteak langabeei eta lan bila dabiltzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

JAIOTZAK

- **Bera Ekiza Elizondo,** irailaren 5ean Etxarri Aranatzen.
- **Amara Aristizabal Iriarte,** irailaren 12an Urdiainen.
- **Xuhar Tajuelo Marin,** irailaren 14an Dorraon.
- **Alfonso Hedo Martinez,** irailaren 14an Irurtzunen.
- **Laia Mundiñano Zamora,** irailaren 15ean Etxarri Aranatzen.
- **Markel Areta Razkin,** irailaren 18an Lakuntzan.

HERIOTZAK

- **Joaquin Urkia Arratibel,** irailaren 15ean Arbizun.
- **Felipe Leiza Leiza,** irailaren 18an Arbizun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

kirola >>

BOTXA

BINAKAKO BOTXAKO FINALAK BIHAR: Guztira 12 bikote lehiatu dira Iratxoko Binakako Botxa Txapelketan. Gaur, ostiralean, final aurrekoak jokatuko dira 19:30etik aurrera eta bihar, larunbatean, final handiak, 19:30ean. Ondoren sari ematea izanen da.

Mendi lasterketak

Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorrirako izena ematea zabalik

www.mendizmendi.com web gunean eman behar da izena

Etxarriko feriekin batera, lastailaren edo urriaren 2an jokatuko da 41. Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorria, 11:00etan. 10 kilometroko proba da, Etxarri Aranaztik bargara doana, Hartzabalera, eta handik atzera ere herrira jaisten dena (557 metroko desnibel positiboa). Izena ematea zabalik dago www.mendizmendi.com web gunean.

Joxeja Maiza 11.a I. Nafarroa Xtremen

67 km-ko proba egiteako 8 ordu eta laurden pasa behar izan zituen etxarriarrak

Larunbatean I. Nafarroa Xtrem mendi lasterketa jokatu zen Zubiri Esteribarren, bi distantziatan: 67 km-ko ultra traila eta 32 km-ko proba. 67 km-ko proba 191 korrikalarik osatu zuten eta Unai Santamaria izan zen azkarrena, zazpi ordu eta erdi ibilita (7:35:34). Joxeja Maiza etxarriarrak lan bikaina egin zuen eta 11.a sailkatu zen (8:16:55). Aitor Salinas 99.a sartu zen (10:44:52) eta Damian Andueza 119.a (11:11:51). Bestalde, 32 km-ko proban Unai Oria gailendu zen 156 korrilariren artean (2:47:34). Juan Daniel Lakuntza 28.a iritsi zen (3:38:59), Iñigo Rekalde 46.a, Iñigo Etxarte 47.a eta Andoni Goñi 48.a, hirurak 3:55:00ra, Iñaki Morillas 60.a (4:02:08) eta Joxean Salgado 75.a (4:16:34).

Irristaketa

Eneko Pinto eta Ane Lapuente.

Eneko Pinto txapeldun Iruñean

San Juanen eta Txantrean irabazi zuen sakandarrak

Abian da irristaketa denboraldi berria. Martxan jarri dira Sakana Irristaketa taldeko irristalariak eta primerako emaitzekin, gainera. San Juan Irristaketa Txapelketan Eneko Pinto irabazlea izan zen eta Ane Lapuente hirugarrena sailkatu zen. Eta asteburu honetan jokatutako Txantreako Irristaketa Lasterketan Eneko Pintok lehenengo postua lortu zuen.

Mendi lasterketak

Olatzagutia-Urbasa: 10 urteak ospatzera

Bihar, 9:00etan, jokatuko da 10. Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa. Aldi berean Nafarroako Banakako Txapelketa izanen da eta aurten, estreinakoz, bi ibilbideren artean aukeratu ahalko dute korrikalariek

Aurten 10. urtea beteko du Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa eder honek eta antolakuntzak, Sutegik, Olaztiko udalaren eta hainbat babesleren laguntzarekin, nobedadeak prestatu ditu urtemuga behar bezala ospatzeko. Batetik, bi ibilbideen artean aukeratu ahalko dute korrikalariek, ibilbide nagusia (26,33 km, 1.838 metroko desnibel +) eta ibilbide laburra (16,04, 1.122 m desnibel +). Ibilbide nagusian ere aldaketak egin dituzte, ibilbidea luzatu baitute azken zatian eta aurreko edizioekin alderatuz 3 km gehiago inguru izango ditu probak.

Ibilbidean 4 denbora kontrol puntu eta edaria eta janaria hartzeko guneak izanen dira. Horretaz aparte, osasun laguntza ere izanen dute puntu estrategikoetan. Bukaeran auzate ederra izango da. Aipatzekoa da korrikalariek euren dortsalak gaur, ostiralean (16:00etatik 19:00etara) eta bihar, larunbatean (goizeko 7:00etatik 8:30era) jaso ahalko dituztela.

Nafarroako txapelketa

Olaztiko proba, aldi berean, Nafarroako Mendi Lasterketen Banakako Txapelketa izango da. Aurreko urtean 120 korrikalari aritu ziren eta irabazleak Joseba Larralde (1:52:23) eta Maite Maiora (2:09:41) izan ziren. Momentuz 79 korrikalari daude izena emanda proba nagusian eta 41 proba laburrean, eta eguraldiak laguntzen duenez, pentsatzekoa da partehartzea ere polita izango dela.

Sari potoloak

Korrikalari guztiendako opari poltsa izanen da. 13:30ean abiatuko den sari ematean, txapeldunek, gizonezkoek eta emakumezkoek, 400 euro, garaikurra eta txapela jasoko dute, bigarrenek 200 euro eta garaikurra, hirugarrenek 150 euro eta garaikurra eta laugarrenek 100 euro. Lehen beteranoek 75 euro eta garaikurra eramango dituzte, eta lehen promesek, junioirrek eta kadeteek garaikurra. Eta Urbasako 10 gazta zozketatuko dira korrikalari guztien artean.

Bi ibilbide: 26,3 km eta 16 km

FESTAK.COM

Lasterketaren lehen zatia berdintsu mantenduko da. Korrikalari guztiak, ibilbide luzekoak eta motzekoak, goizeko 9:00etan abiatuko dira Clinker paretik. Zuzenean Urbasako ipar gailurreriako punturik altuenera joko dute, Tontorraundira (1.157 m). Bira gorabeheratsua egingo dute ondoren, ekialdera Altsasuko portugainetik (1.150 m), Morterutxora jaitsi (890 m) eta segidan Zelai handitik (1.113 m) Bargagainera helduko dira (1.153 m), atzera ere Morterutxora heltzeko. Orain arte, hemendik aurrera eta parkeko harrera etxe atzealdetik pasatuz, herri sarreraraino jaisten zen. Kadeteek, gazteek eta ibilbide motza (16,04 km) aukeratu duten korrikalariek helmugarako bidea hartuko dute eta ibilbide nagusia aukeratu dutenek, aldiz, mendebaldera jarraitu eta lehenik Egiburu gaina igo beharko dute, handik Ziordiko portua hartu arte jarraitu eta hau igo ondoren Gainsoilera (1.068m) iritsi arte. Hortik aurrera eta gailurreria ekialderantz jarraituz, NA-718aren Urbasako sarreraraino heldu eta bertatik helmugarainoko jeitsiera hartuko da.

www.olatzagutia-urbasa.eus

Probaren informazio guztia, ibilbideen track-ak, mapak eta beste.

Osaren hirugarrena eta Zorrozaren errekorra

Aitor Osak (40:30) eta Maria Zorrozak (49:27) irabazi zuten 8.Uharte-Arakil-Beriain Km Bertikala. Zorrozak emakumezkoen errekorra hobetu zuen, 20 segundotan. Aritz Munarriz izan zen lehen sakandarra. Nafarroako Taldekako Txapelketan Lakuntzako Zabalarte bigarrena sailkatu zen eta Sakana Bizirik hirugarrena

Aurtengo 8. Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala (5 km, 1.023 m desnibel +) euri, haize eta tarteka lainopean jokatu zen. Horrek, berez gogorra den proba are gehiago gogortu zuen. 145 korrikalarik hartu zuten irteera eta horietatik 1 erretiratu egin zen.

Hala ere, Aralar Mendi elkarteak hainbat babesle eta laguntzailerekin antolatutako probak ez zuen ikuskizuna galdu. Kontrakoa, hain juxtu. Aitor Osak bere hirugarren Uharte-Arakil Beriain Km Bertikala irabaztea lortu zuen (40:30). Probako errekorra (39:54), berea, ez zuen hobetzea lortu, baina ikusgarri aritu zen debatarra. "Eguraldi kaxkar honekin ezin izan da errekorra gainditzera joan. Hala ere, lasterketari nahiko ongi eutsi diot, Iban Muruak gaur irabaziko zuela uste bainuen. Soilik minutu erdira sailkatu da" azaldu zuen. Iban Murua bere apopiloa da, Osarekin entrenatzen du, eta bigarrena izan zen (41:05). Iñigo Lariz izan zen hirugarrena (42:59).

Emakumezkoetan sekulako maila eman zuen Maria Zorroza Iriondok. Bere lehendabiziko Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala zen eta gernikarrak 2013an Leire Agirrezabalak ezarritako errekorra (49:47) 20 segundotan apurtu zuen (49:27). "Parean ibiliko ginela uste nuen, baina bi minutu atera dizkiet eta harrituta nago" adierazi zuen. Virginia Perez izan zen bigarrena (51:38) eta Maider Fraile hirugarrena (52:31).

Gizonezkoetan Jose Luis Beraza izan zen lehen beteranoa (47:02) eta emakumezkoetan Montserrat Vazquez (55:28). Xabier Macias izan zen lehen promesa (43:58), Aitor Ajuria lehen juniorra (44:15) eta Rafa Urbizu lehen kadetea (50:27).

Bestalde, Euskal Herriko Bertikalen Koparako puntuagarria izan zen Uharte Arakilgo proba eta Kopako sariak ere banatu ziren.

Zabalarte eta Sakana Bizirik

Proban 13. postuan sailkatu zen Aritz Munarriz izan zen lehen sakandarra (46:49). Beñat Katarain lakuntzarra 15.a sailkatu zen (46:58), bigarren sakandarra. Jose Luis Beraza uhartearra 17.a sailkatu zen (47:02), hirugarren sakandarra eta lehen uhartearra, eta probako lehen beteranoa izan zen. Aurten ez zen emakume sakandarrik animatu Uharten aritzera.

Zabalarte eta Sakana Bizirik, Nafarroako bigarren eta hirugarren talde onenak

Uharte Arakilgo proba, aldi berean, Nafarroako Km Bertikalen Txapelketa izan zen aurten, banakakoa eta kluben artekoa. Banakakoan, lasterketan laugarren sailkatu zen Mikel Beunza izan zen lehen nafarra, seigarren postuan sailkatu zen Xabier Macias bigarren nafarra, eta hamahirugarren postuan sailkatu zen Aritz Munarriz etxarriarra hirugarren nafarra. Eta Nafarroako Kluben Artekoan, Txurregi izan zen klub txapelduna, Lakuntzako Zabalarte bigarrena, Katarain, Rubio, Jdi Baba eta bestek egindako lanari esker, eta Sakana Bizirik hirugarrena, Munarriz, Agirre, Jimenez eta bestek egindako lanarengatik.

Sakandarrak Uharte Arakil-Beriain Km Bertikalean

1.	Aitor Osa (Deba)	40:30
13.	Aritz Munarriz (Etx.)	46:49
15.	Beñat Katarain (Lak.)	46:58
17.	Jose Luis Beraza (Uhar.)	47:02
21.	Mikel Rubio (Irur.)	48:08
25.	Angel Arrieta (Uhar.)	48:36
28.	Ander Unzurrunzaga I. (Etx.)	49:11
41.	Alatz Agirre (Arb.)	51:33
51.	Aitor Mozo (Lak.)	52:45
56.	Fidel Jimenez (Etx.)	53:23
60.	Iker Flores (Urd.)	53:43
64.	Alberto Razkin (Etx.)	54:21
66.	Jose Javier Beregaña (Uhar.)	54:32
70.	Aitor Hernaiz (Lak.)	55:00
86.	Fran Araña (Arb.)	57:46
90.	Asier Reparaz (Arb.)	58:32
115.	Migel Lopez (Uhar.)	1:02:30
120.	Noureddine Jdi Baba (Lak.)	1:03:46
124.	Ander Rosado (Arb.)	1:04:56

Aritz Munarriz, sariarekin. J.LIZARRAGA

Mendia

Zeberio eta Romero Cho Oyuko lehen kanpamenduan

Javier Zeberio Arraras bakaikuarra Himalayan dago, Joanma Romero valentziarrarekin batera, Cho Oyu (8.201m), bere lehen zortzimilakoa, igotzeko espedizioan.

Kanpamendu nagusian altuerara egokitu ondoren, Cho Oyu igotzeko ibilbideari ekin zioten. 6.400 metrotan lehen kanpamendua muntatuta, herenegun bigarren kanpamentua muntatzea aurreikusten zuten, 7.000 metrotan, baina ezin izan dute, elurte jarraiengatik. Aurrera egiteko eguraldi egokiaren esperoan, 6.713 metroko altueran daude egun.

HTTP://RACETRACKER.ES/RT/DEZEROACIM/CHO-OYU

Espediziokideen ibilbidea markatzen duen aplikazioa.

LEZETIK ARAIARA IGANDEAN

Dantzaleku Sakanako mendi sekzioak igandean txangoa antolatu du. Eginoko Lezeko haitza igo, eta goikoaldetik Umanditik pasatzea da asmoa, Zirauntza ibaiaren sorburu ederretik Zalduondora jaitsi eta bertatik Araiara iristeko (20 km). Autobusa igandean goizeko 8:00etan aterako da Zelanditik (636 441 796).

Txirrindularitza

Goazen txirrindulaz Sakanaz gozatzera

23. Bizikleta Eguna antolatu dute igandean. 9:00etan Irurtzundik aterata, Altsasuraino (41 km). Sakanako aintzinako Donejakue bidea gaia hartuta, bi geldialdi egingo dira, Egiarretako Itxasperrin eta Uharte Arakilgo Zamartzen

Txirrindulari zaleek zita garrantzitsua dute igandean: 23. Sakanako Bizikleta Eguna, "Sakana bizikletaz ezagutzen" leloarekin ospatuko dena. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatu du ekitaldia, Barranka, Aralar eta Burunda txirrindularitza taldeen eta Irurtzungo eta Altsasuko Udalen laguntzarekin.

Sakanan txirrindularitzarekiko afizio handia dago. "Horregatik pentsatu genuen, bere garaian, bizikleta egun ez lehiakor bat antolatzea interesgarria izanen zela eta urtetik urtera egun hori indarra hartzen joan da" azaldu zuen aurkezpenean Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak.

Sakana ezagutu

Txirrindularitzarekin goiz atsegin bat pasatzea da asmo nagusia, gure eskualdea gurutzatuz, proba ez lehiakor batean eta nahiko erraza den ibilbidea eginez. "Halako erronka modukoa da Irurtzundik atera eta Altsasura iristea, eta tarte horretan gure herriak, kaleak, bideak, zubiak, baselizak eta basoak ezagutzea" nabarmendu zuen Gerrikagoitiak. Bide batez, Sakanako herri ezberdinetako adin ezberdinetako pertsonen arteko erlazioa sustatu nahi da, eta eskualdetik kanpoko parte-hartzaileak ere animatu nahi dituzte proban aritzera. Iganderako ez dute euririk iragarri eta horrek, jakina, lagunduko du. "Ea aurreko urteko 400 partaideak gainditzen ditugun" gaineratu zuen kirol teknikariak.

41 km-ko ibilbideko geldialdiak Itxasperrin eta Zamartzen

Irurtzundik goizeko 9:00etan abiatuko dira txirrindulariak, Altsasuraino heltzeko (41 km). Gehienetan bigarren mailako errepideetatik ibiliko dira, asfaltoan, eta tarteka pistetara sartuko dira. Aurten Lizarragabengoatik pasako da ibilbidea eta, nobedade moduan, Egiarretako Itxasperrin eta Uharte Arakilgo Zamartzen egingo dira geldialdiak.

Kaskoa, bokata eta puntuan jarritako bizikleta

Bizikleta eguneko zerbitzuak erabiltzeko –Irurtzunera eramateko autobusak, bizikletak eramateko kamioiak, Altsasutik gero etxera eramateko autobusak eta kamioiak…– aurretik izena eman beharra zegoen, Mankomunitatean (948 464 866), doan.

Arautegiari dagokienez, kaskoa ematea derrigorrezkoa da eta hamaiketakoa ere norberak eraman beharko du. Kamioiak eta autobusak egongo dira txirrindulariak aurretik Irurtzunera eramateko –autobusa 7:45ean abiatuko da Ziorditik, herri guztietara sartuz– eta probaren ondoren Altsasutik euren herrietara bueltatzeko. Ibilbidearen atzetik kamioia eta autobusa joango dira, eta baita ere mekanikaria. Oso garrantzitsua, iganderako bizikleta puntuan jartzeko deia egin dute kirol zerbitzutik. Bestalde, eta segurtasuna bermatzeko, parte-hartzaile guztiek antolakuntzaren ibilbidea jarraitu eta errespetatzeko eskaria egin dute.

Sakanako **Donejakue** bidea

Sakanako Bizikleta Egunarekin gure txokoak ezagutarazi nahi direnez, asmo hori bere egin eta, elkarlanean, Sakanako Garapen Agentziak Sakanako Donejakue bidea zena ezagutarazi nahi du Sakanako Bizikleta Egunean. "Gure ingurunea ezagutzeko helburu horren barruan, Sakanako Garapen Agentzian badago proiektu bat, Sakanako Donejakue bidea edo erromatar galtzadan oinarritutakoa, eta Bizikleta Eguneko ibilbide hau aprobetxatu nahi genuen Sakanan erromanikoari lotutako bi elementu garantzitsu horiek, Egiarretako Itxasperriko Santiago ermita eta Uharte Arakilgo Zamartze ermita, ezagutzera emateko. Bide hau mende luzeetan era guztiko pertsonek erabili dute, eta horretaz gozatu dezatela irailaren 25eko Bizikletaren Egunean parte hartzen dutenek" nabarmendu zuen Iker Manterolak. Sakanako bolondres talde batek azalpenak emango ditu Itxasperrin eta Zamartzen. "Donejakue bide hau eta elementu hauek guztiak balorean jarri nahi ditugu, jendearen kuriositatea piztu, eta datorren urtetan irudikatzeko asmoa dugu. Hau da, Donejakue bidea markatzea, bizikletaz egiteko. Bisualizatzen hastea. Eta aukerak ematen badu, halako beste bide batzuk egiteko asmoa dago" nabarmendu zuen garapen agenteak.

Atletismoa

Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskolara animatu

Urriaren 14an hasiko da, Altsasuko Dantzalekun, eta urriaren 7ra baino lehen eman behar da izena

Nola hasi korrikan? Zeintzuk dira teknikak? Luzaketak egin behar dira? Emakumeei korrika egiteko beharrezko prestakuntza eskaintzeko jaio zen Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskola, Mank-ek bulkatuta. Erantzuna primerakoa izan da eta aurreko ikasturtean, esaterako, 30 emakume trebatu ziren.

Bi aukera: hastapena edo hobekuntza

Aurten 5. Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskola antolatu du Mank-ek 18 urtetik gorako emakumeendako, Altsasuko Udalaren, Iñigo Aritza ikastolaren eta Dantzaleku Sakana Atletismo Taldearen laguntzarekin.

Urriaren 14an hasiko da, maiatzaren 5era arte. Aitor Mozo Villanueva lakuntzarra izango da monitorea. Bi talde izanen dira: hastapena ikastaroa, 17:15etik 18:00etara, atletismoan lehen aldiz murgiltzen direnendako, eta hobekuntza ikastaroa, 18:00etatik 19:15era.

Izena ematea zabalik dago, urriaren 7ra arte, Mank-eko kirol zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus).

Aurreko denboraldiko Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskolako kideak.

Pilota

Finalista guztiak, Nafarroako Pilota Federazioko presidente Migel Pozueta, Altsasuko alkate Javier Ollo, Kirol Institutuko Mikel Goldarazena eta SDA-ko ordezkariekin.

Otxoa-Petriati, Espinal, eta Arrieta-Landiribar txapeldun

47. Otadiko Kristo Deuna Torneoko finalek zapore gozoa utzi zuten

Igandean jokatu ziren Sociedad Deportiva Alsasuak antolatutako 47. Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoko finalak, Burunda pilotalekuan. Giro bikainean, final entretenigarri eta ikusgarriez gozatzeko aukera izan zuten pilota zaleek.

Gazteetan Otxoa eta Petriati gailendu ziren. 22 urtez azpiko lau t´erdiko finalak 28 minutu iraun zituen. Espinalek, sakez lortutako 7 tantoei esker, partida bideratuta utzi zuen berehala, erraz gailenduz. Elite mailako finala estuagoa izan zen. 70 minutuko partida gogorrean, 10era,12ra, 17ra, 18ra, 20ra eta 21era berdindu zuten. Emozioa pil-pilean zela, azkeneko tantoa Arrietaren eta Landiribarren aldera erori zen.

47.Otadiko Kristo Deuna Torneoko finalak

Gazteak: Otxoa-Petriati **22** / Nazabal-Ganboa **16**

22 urtez azpikoak, lau t´erdian: Espinal (Uharte Iruñea) **18** / Olano (Irurtzun) **8**

Eliteak: Iriarte (Buruzgain)-Eskiroz (Zugarralde) **21** / Arrieta (Hernani)-Landiribar (Buruzgain) **22**

Ezkurdia-Rezustaren aukera sanmateotan

Gaur Olaizola II.aren eta Merino II.aren kontra ariko dira: Logroñoko sanmateotako Binakako Torneoan, iganderako finalerako B multzotik nor sailkatuko den erabakiko da gaur. Jose Javier Zabaleta eta Victor aukerarik gabe geratu dira, jokatutako bi partidak galdu baitituzte. Ezkurdiak eta Rezustak Olaizola II.a eta Merino II.a izango dituzte aurkari gaur, 17:15ean (ETB1, ntb), eta irabazlea igandeko finalerako sailkatuko da.

Beste multzoan atzo erabaki zen nor sailkatu zen finalerako, Altuna III.a-Albisu edo Irribarria-Untoria.

Txirrindularitza

Maialen Aramendia 74.a Europako Txapelketan

Asteburuan junior eta elite mailako Europako Txirrindularitza Txapelketak jokatu dira Plumelecen, Bretañan. Junior mailako lasterketan aritu zen Maialen Aramendia (68 km). Liane Lippert alemaniarra izan zen txapelduna. Aramendia 74.a iritsi zen helmugara, 6:41ra. "Inoiz baino gehiago sufritu dut. Maila oso altua zen eta hasieratik kostatu zaigu aurrean egotea" azaldu zuen iturmendiarrak..

Maialen Aramendia, ezkerrean. UTZITAKOA

Etxeberria txapeldun

Arabako Itzuliko azken etapa Ailetz Lasak irabazi zuen baina sailkapen orokorra Etxeberriarendako izan da

Igandean kadeteen 39. Arabako Itzuliko 3. eta azken etapa jokatu zen Dulantzin. Lasterketa Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko Ailetz Lasa ziordiarrak irabazi zuen, esprintean (1:24:37), baina Aralar klubeko Intersport Irabiako Josu Etxeberria 6.a sartu zen, denbora berean, eta sailkapen orokorrari eutsi zion. Horrela, Etxeberriak irabazi du 39. Arabako Itzulia (4:10:36), Mario Aparicio (Bici Aranda) eta Jokin Murgialdai (Arabarrak) txirrindularien aurretik. Ailetz Lasa 4.a sailkatu da, 9 segundora, Marcos Pison 8.a, 34 segundora, Unai Villalobos 13.a, 1:59ra eta Urko Gorriti 17.a, 4:45era. Quesos Albeniz izan da probako talde onena.

Bihar txikiak Altsasun. Aurreko astean euriarengatik bertan behera geratu zen Altsasuko eskolarteko txirrindularitza proba. Bihar jokatuko da, 17:00etan, Zumalakarregin. Lasterketa gehiago: www.guaixe.eus

Automobilismoa

Urbasako igoerarako atzerakontuan

Urriaren 1ean jokatuko da XXXVI. Urbasako Igoera

Aste eskas bat barru jokatuko da Sakana Motorsport taldeak Nafarroako Automobilismo Federazioarekin batera antolatutako XXXVI. Urbasako Igoera. Automobilismo proba beterano hau Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketarako eta Mendi Igoeren Open Norte Sportech Txapelketetarako baliagarria izango da eta ikusmin handia sortu du.

Errepidea bezperan itxiko da

NA-718 errepidean burutuko da proba, 38,050 km puntutik 32,220 km puntura, Olaztitik Urbasako portua igo arte (5,72 km). Urriaren 1ean jokatuko da, hurrengo larunbatean. 13:30ean hasiko dira entrenamenduak, eta segidan lehenengo txanda eta bigarrena jokatuko dira.

Segurtasunagatik Olaztitik Urbasara bitarteko errepidea bezperan itxiko da, ostiral gauean, 22:00etan.

Antolaketan laguntzeko deia

Tamaina horretako ekitaldi bat antolatzeak lan handia du atzean: baimenak lortu, segurtasuna lotu, dirua bildu… Aurrekontu handia behar da proba aurrera ateratzeko, aseguruak eta beste estaltzeko. Guztia behar bezala lotzeko lanean dabiltza buru-belarri Sakana Motorsport taldekoak. Olaztiko Udalaren, Maisuenea gaztetxearen, Guaixe fundazioaren eta hainbat babesleren laguntza izan dute.

Zozketa

Ekitaldiari babesa emateko, 5 euroren truke sarrerarekin batera automobilismoarekin zerikusia duten saria zozketatuko da.

Izena emateko

Urbasako igoeran aritu nahi duten pilotuek gaur dute izena emateko azken eguna, www.fenauto.com web gunean.

Goikoetxea eta Fernandez podiumean

Irailaren 10ean Lur Gaineko II. Eremua Calahorra Hiria Saria jokatu zen. Carlos Aldekoa pilotuak eta Javier Goikoetxea kopilotu olaztiarrak (Ford Fiesta R5) irabazi zuten proba (22:22). Aitor Fernandez pilotu eta Iker Askargorta kopilotu olaztiarrak (Seat Ibiza 2.0 16V) zortzigarrenak sailkatu ziren (24:56), bere mailan, 2RM mailan, hirugarrenak. "Matxurak direla eta ez direla denboraldi konplikatua izan da hau. Babesle eta lagunei eskerrak eman nahi dizkiegu" adierazi du Fernandezek. Bestalde, larunbatean jokatutako Baños de Rioja VIII. Lur Eremuko Rallyan Aldekoa eta Goikoetxea bigarrenak sailkatu ziren.
Bestalde, euripean jokatu zen, asteburuan, 15. Aramaioko Rallysprinta. Garikoitz Goñi eta Iñaki Aribe (Renault Megane) 13.ak sailkatu ziren. Argazkian, Fernandez eta Askargorta.

Kiroldegia

Fibromialgia eta neke kronikoa dutenendako jarduera

Altsasun, Etxarri Aranatzen eta Irurtzunen antolatu dute, urritik ekainera, eta irailaren 30era baino lehen eman behar da izena

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, AFINA (Nafarroako Fibromialgia Elkartea) elkartearekin eta Altsasu, Etxarri Aranatz eta Irurtzungo Udalekin batera, fibromialgia, neke kronikoaren sindromea eta sentiberatasun kimiko anizkoitza duten pertsonei osasuna hobetzeko jarduera fisiko espezifikoa eskainiko die.
Ikastaroa Altsasun (Labaderon), Etxarri Aranatzen (Kultur Etxean) eta Irurtzunen (Kultur Etxean) eskainiko da, urriaren 4tik ekainera, astelehenetan eta asteazkenetan. Altsasun eta Etxarrin 16:00etatik 17:30era eta Irurtzunen 10:40etik 12:10era.
Izena ematea zabalik dago irailaren 30era arte Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.com). AFINAko bazkideek 11 euro ordaindu beharko dituzte hilean eta bazkide ez direnak 14 euro hilero.

Kirol egokitua

Urriaren 3tik maiatzaren 18ra bitartean burutuko da Mank-ek Askalatsen laguntzarekin antolatutako kirol egokitua. Igeriketa eta soinketa eskolak eskainiko dira, Arbizuko kiroldegian, Aitor Mozo Villanuevaren begiradapean. Izena ematea zabalik dago Mank-en.

Atletismoa

Martinez eta Beunza azkarrenak Dorraon

Dorraoko frontoi aurrealdea izan zen larunbatean jokatutako XIII. Ergoienako Birako abiapuntu eta helmuga. Lehenik eta behin maila txikiko lasterketak jokatu ziren, eta ondoren ekin zieten nagusiek Ergoienako hiru herrietan barna jokatu zen lasterketari (8,5 km). Zeharraldeko haize hotz eta fina izan zuten bidaide korrikalariek.

Sakanako Kopa-Lasa Kirolak Sarirako baliagarria, proba oso gorabeheratsua da Ergoienako Bira, erritmo aldaketa, aldapa eta bihurgunez betetakoa. Lehenik eta behin Unanura jo zuten korrikalariek, buelta hartu eta atzera ere Dorraora itzultzeko. Ordurako Dani Martinez iruindarra kokatu zen aurrean, Alberto Martinez lakuntzarra eta Raul Audikana atzetik zetozela. Ondoren, atzera ere Unanura jo zuten, aurrera egin eta Lizarragaraino heltzeko. Handik Dorraoko bidea hartu zuten, helmugaraino heltzeko.

Azken txanpan Dani Martinezek abiadura bizkortu zuen, Martinez atzean utzi eta bakarrik iritsi zen helmugara (32:16), lakuntzarrari 24 segundo aterata (32:40). Raul Audikana olaztiarrak osatu zuen podiuma (33:55). Emakumezkoetan Izaskun Beunza izan zen txapelduna (39:52). Olaztiarrak bi minutu pasa atera zizkion proban estreinatu zen Ginesa Lopezi (42:05), eta Maite Zabaleta etxarriarrak osatu zuen podiuma(44:22). Beteranoetan Santi Agirre iturmendiarra (41:03) eta Ginesa Lopez (42:05) izan ziren lehenak.

Auzate ederrarekin batera, irabazleek trofeoak jaso zituzten eta korrikarien artean Ergoienako produktuak zozketatu ziren.

XIII. Ergoienako Birako sailkapena

GIZONEZKOAK

1.	Dani Martinez (Iruña)	32:16
2.	Alberto Martinez	32:40
3.	Raul Audikana	33:55
4.	Antton Zelaia	34:17
5.	Roberto Benito Ruiz de Muniain	35:31
6.	Adur Senar	36:07
7.	Iñaki Alvaro	37:07
8.	Kevin Davalos	37:56
9.	Javier Martinez	38:10
10.	Igor Artieda	38:19
11.	Jesus Urra	38:32
12.	Oscar Garcia de Andoin	38:33
13.	Beñat Larraga	38:32
15.	Santi Agirre	41:03
16.	Angel Barandalla	41:42
18.	Juan Pedro Aritz	42:05
19.	Patxi Arbizu	44:22
21.	Mikel Razkin	45:16
22.	Urko Resano	45:16
24.	Amets Artieda	48:40
25.	Luis Ihabar	49:54
26.	Jose Mari Merzero	51:12
27.	Jose Mari Elola	52:35

EMAKUMEAK

1.	Izaskun Beunza (14.postua)	39:52
2.	Ginesa Lopez (17. postua)	42:05
3.	Maite Zabaleta (20. Postua)	44:22
4.	Silvia Perez (23. Postua)	46:02

TXIKIAK

7 urtetik beherakoak:

1. Hodei Lizarraga
2. Oier Rubio
3. Adrian Otamendi

8 URTETIK GOIKOAK

1. Andoni Razkin
2. Mikel Martinez
3. Julen Martinez

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

1. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 2 – ARTAJONES 1
LAGUN ARTEA 1 - ROTXAPEA 0
Euriak eta haizeak baldintzatutako partidan, Etxarrik dominatu zuen. Bigarren zatian Xabatek Etxarri aurreratu zuen, eta Goikoetxeak bigarrena sartu zuen bukaera aldera. Artajonés gerturatu zen, baina 3 puntuak Etxarrin gelditu ziren.
Lakuntzan ere garaipenarekin ekin diote denboraldiari. Euripean, parez pare aritu ziren bi taldeak. 55. minutuan Anderrek Lagun Artea aurreratu zuen. Bi taldeek aukera gehiago izan zituzten, baina markagailua ez zen gehiago mugitu.

Sailkapena >>

1. Lezkairu ..... 3 p
5. Etxarri Aranatz ..... 3 p
6. Lagun Artea ..... 3 p

Asteburuko jardunaldia

DONEZTEBE - ETXARRI ARANATZ
(Igandean, 17:00etan, Donezteben)
ARTAJONÉS – LAGUN ARTEA
(Larunbatean, 16:30ean, Artaxoan)

ERREGIONAL MAILA. 1. multzoa

Asteburuan hasiko da erregional mailako 2016-2017 liga. Aurreko denboraldian 9.a izan zen Altsasuk goian sailkatu nahiko luke, preferente mailara igotzeko aukerak izateko. Aurrera, Beti Kozkor, Amaia, Ardoi, Lagunak, Pamplona, Salesianos, Gazte Berriak eta San Jorge taldeekin ariko da Altsasu.

Asteburuko jardunaldia, ligako lehena

ALTSASU - AMAIA
(Igandean, 17:00etan, Dantzalekun)

ELOMENDIKO TXAPELKETA

1. JARDUNALDIA

ZALDUA 3 – IZALSA 1
15 talde lehiatuko dira aurten Elomendiko Futbol Txapelketan. Nabaria da Egiarreta taldearen falta. Hainbat urtetan lehiatu ondoren, aurten ez dute talderik osatu.

Sailkapena >>

1. Bar Mikel ..... 3 p
3. Zaldua ..... 3 p

Asteburuko jardunaldia

BIDEZARRA - ZALDUA (Lekunberrin)

TALDE JAPONIARRA GAZTETXEAN: The Rodeos Tokyoko taldeak lau kontzertu emanen ditu Euskal Herrian. Haietako bat igandean, 19:00etan, Altsasuko gaztetxean. Seikoetak musika mestizajea du sormenerako abiapuntua. Dantzarako ezin aproposagoa den protesta musika da.

kultura >>

Guaixeren Udako Argazki Lehiaketak saituak ditu

Agorrilean, irailaren 9ra bitartean, uda gaia duten argazkia Guaixeren argazki lehiaketara aurkezteko aukera izan da. 49 proposamen jaso ditugu. Epaileek Helena Nuini eman diote saria: NEKA opari TXEKE bat. Esperientzia bat oparitu. Urte guztian eta Nekaturreko edozein ostatuetan erabili ahal izateko. *Nor bizi da hemen* argazkiagatik eskuratu du saria; irudian atetzar baten atzean dagoena ikusi nahian ari den pertsona bat ikusi daiteke.

Epaileenarekin batera bigarren sari bat ere banatu da. Azken hori **www.guaixe.eus** web orriaren erabiltzaileen botoen bidez aukeratu da. 225 boto jaso dira eta www.guaixe.eus-eko 69 bisitariek Eider Carrionen *Izan zaitez ZU, izan zaitez libre* Hendaian argazkiaren alde egin dute. Hendaiako hondartzako uretan besoak gora dituzten lau emakumezko eta gizonezko bat ageri den argazkiagatik Carrionek udazken-neguko itxura aldaketa pertsonalizatua eskuratu du sari gisa, Marian Navarro ileapaintzailearen eskutik.

Ahots eta txistu **aireak dantzatzera**

Larunbatean, 19:00etan, Etxarri Aranazko plazan

Dantza eta musika ikuskizuna eskainiko dute bihar Etorkizuna dantza eskolak, Etxarri Aranazko abesbatzak eta abesbatza txikiak Burundar Txistulariekin batera. Azken hiru kultur erakundeak kioskotik ariko dira eta haren aurrean jarritako oholtzan dantzariak. Azken horiek euren koreografiak abesbatzen edo txistularien doinura dantzatuko dituzte. Bakarkako saioak ere izanen dira.

Egitaraua: **www.guaixe.eus**

Gobernuaren **kultura planaz** bilera

Asteazkenean, izanen da Iortia kultur gunean, 17:00etatik 19:00etara

Kultura Zuzendaritza Nagusiak-Vianako Printzea Erakundeak plan parte-hartzailea eta plurala sortu nahi du. 2016-2019 aldirako izanen da plan hori. Hura egiteko bigarren fasea martxan da eta eskualdekako informazio eta kontsulta saioak egiten hasi dira. Haien bidez nafarren arte-sektoreen beharrak eta premiak jaso nahi dituzte. Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekia web orrian dago orain arte sortutako agiria.

Interesatuak Altsasun asteazkenean eginen den bilerara gonbidatuta daude. Kontsultak egin edo ekarpenetarako participacion-cultura@navarra.es e-posta helbidera zuzendu daiteke.

Hasteko, **dekorazio**-arteak

Lastailaren 9ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean.

Iortia kultur guneko erakuseta denboraldia Yolanda Arnedoren dekorazio-arteen tailerrak zabaltzea ohiko bihurtu da. Dozena bat urte izanen dira Arnedoren dekorazio-arte lanak Gure Etxean erakusten hasi zenetik. Eta urtero makina bat bisitari harrituta uzten ditu erakusketak. Arnedok berak azaldu digunez, teknika mixtoekin sortutako obrak dira guztiak. "Urtero bizpahiru teknika berri erakusten ditut. Haiekin eta aurreko urteetan ikasitako teknikekin sortutako obrak daude erakusketan".

Paper zati txikiak pertsonalizatzea (txantilloiak erabiliz pintatuz, gogoko testuak jarriz), collageak, pasta edo paperarekin taula, dekapatu bikoitza, oihal gainean sortutako testurak, zaharberritzea, birziklatzea, naturako elementuen erabilera, material zaharrak, hiri-elementuak (matrikulak, pegatinak)… Horiek guztiak lore-ontzi, pitxerra, botila, jostailu, makina bat altzaritan, koadro, dekorazio-rako objektu edergarri, kutxa eta abarretan ikusgai daude.

Ikasleen ideiari Arnedok bere ekarpena egiten dio eta bien artean aukeratzen dute elementu bakoitzarendako aukera onena. Adin guztietako emakumeen egindako lanak dira ikusgai daudenak: "gizonezko bakarra zebilen, baina utzi zuen. Ez dakit zergatik ez diren animatzen. Altzari batzuk, esaterako, zerotik sortu dira" gaztigatu du Arnedok.

bazterretik

Jose Luis Asensio

Karoshi

Japonian, urtero, lanean gehiegi aritzeagatik 10.000 lagun inguru hil egiten dela uste da nahiz eta ofizialki zenbakia 200 lagun baino txikiagokoa izan. Ez, ez dut esan nahi lan istripu batean hilda, baizik eta lan gehiegi egiteagatik sorturiko gaixotasun, estres edo ekintzen ondorioz. Sindrome honi Karoshi esaten diote.

Gehienetan, bihotzeko batek jota izaten da. Sindrome hau, lehen aldiz, 1969. urtean erabili zen, 29 urteko langile baten heriotza azaltzeko. Bihotzeko batek jota, hain zuzen ere. Lanean egondako lan ordu kopuruak ez zuen ondo deskantsatzen uzten eta estresari lotuta, bihotzekoa da ondorioa. Eta gizartea larritzen hasi zen.

Ez da gutxiagorako, zeren hildako kopuruak ez du behera egiten eta Gobernuak ez daki nola geratu. Gainera, esan ohi da, Japonian zure enpresarekiko konpromisoa lan egindako orduen arabera neurtzen dela. Lehiakortasuna basatia da langileen artean, mirespena eta statusa lortzeko. Enpresak gehiegizko lan orduak murrizten eta baita debekatzen hasi dira, baina dirudienez ez da nahikoa, azkenean bata besteari kontrolatzen aritzen direlako ea nork gehiago egin.

Kasu mediatiko pila izaten da egunkaritan. Famatua izan zen 37 urteko autobus gidariarena, enbolia batek akabatu zuena 15 urtez lanean egunero pasa ondoren. 15 urtez inoiz egun bat libratu gabe. Beste bat, bere buruaz beste egin zuen zerbitzari batena, bere gurasoei laguntza eskatu ondoren, lanarekiko zuen beharra eta estresa ezin izan zituelako gainditu. Azkeneko bi hilabeteetan, bere lan orduak baino 280 ordu gehiago lan egin zuen. Hau da, jarraian egunero 10 ordu inguru lan egitea bezala, asteburuak barne.

Ikertzaile, periodista eta aktibista batzuek lan baldintza okerrenak dituzten enpresei "enpresa beltza" saria ematen hasi dira, eta bere buruaz beste egin zuen zerbitzariaren nagusiak, bertako politiko eta dirudun ospetsua dena, bi urtez jarraian jaso du saria, eta bere izateko modua aldatu beharrean, hildakoaren gurasoak mesprezatu zituen azalpenen bila joan zitzaizkionean.

Hala ere, ulertzekoa da ere japoniarrek lan egitea horren barneratua izatea. Bigarren gerrate mundiala galtzean, lanean buru belarri murgilduz bakarrik lortu zuten berriro aurrera egitea, eta horretan bihurtu dira, langile burugogor bikainetan. Lanak eman die gaur egun duten guztia. Dena galdu ondoren berriro lehen mailako herrialdea izatera iritsi direlako jo eta ke lanean.

Baina fede ikaragarria dut haiengan, ziur berriro ere aldatzeko gai direla arazoa konpondu eta aurrera egiteko. Gizartearen eskutik etorri behar duelako aldaketak lehenik eta behin.

Gasteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 20%	euria: 5%	euria: 50%	euria: 30%	euria: 10%	euria: 15%	euria: 20%
Min: 13 Max: 19	Min: 14 Max: 25	Min: 14 Max: 17	Min: 10 Max: 18	Min: 9 Max: 21	Min: 10 Max: 22	Min: 12 Max: 19

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	26	8.5	45.8
Etxarri A.	25.8	6.8	39.7
Altsasu	23	7.5	54.5
Aralar	16.9	3.7	76.5
Urbasa	14	10.5	23

: ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
23	1	9	16

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com
KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea
Acrylcolor SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

EUSKARAZ?
BAI!
¡VOY!

20 EUSKALTEGI, IKASTEGI ETA AKADEMIA BAINO GEHIAGO ZURE ESKURA NAFARROAN

ZATOZ EUSKARA IKASTERA

WWW.EUSKARAIKASI.NAFARROA.EUS | WWW.APRENDEEUSKERA.NAVARRA.ES
☎ 848 426 054 (ORDUTEGIA 08:30 - 14:30)

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra